

hiruka

213. zenbakia
2024ko urtarrila

Eguraldiaren eragina landa eremuan

Zerutik datorrenari SO



WhatsApp kanal berria

Uribe Kostako informazioa, zure eskura!

Gogoratu, TELEGRAM gurago izanez gero, bertan ere topatuko gaituzula!



hiruka

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Muturreko eguraldiaren eragina jomugan, baserritarren begietatik
- 10 Herriz herri
- 20 Berbetan: Ane Elordi, Korrikako koordinatzailea
- 24 Uribe Kostako agenda
- 25 Lehen/orain eta Uribitakora
- 26 Gehigarri berezia: Hezkuntza
- 32 Noa Cliff, *La Tormenta* disko berria
- 33 Maitane Nerekan, *Euskaraz zergatik?* ipuin ilustratuz
- 34 Iritziak eta Horoskopoa
- 35 Usategi
- 36 Lutzana Arraun Elkartea, kirolari bila
- 37 Olaia Tejada, patinatzailea eta dantzaria
- 38 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 40 Faceguk
- 41 Mundukatuak
- 42 Aitormenak: Pello Bilbao
- 43 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Aroa Sotelo Velasco, Hodegi Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Ugo Mayor, Jokin de Pedro, Gorka Aurre, Joanes Atxa, Itxaso Paya Ruiz, Irene Larrabeiti eta Joseba Santxo

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Laborategietatik at



UGO MAYOR Ikerbasque irakasle-ikertzaile EHU

Gure egunerokoa: gai baten inguruko ezagutza aztertu, hipotesi bat sortu, diseinu esperimentalak definitu, laginketa (datu bilketa) dimentsionatu, kontrol esperimentalak egokitu, ebidentziak jaso, datuen azterketa aurreiritzirik gabe burutu, ondorioak atera. Errealitatea hobe ulertzeko.

Eta ikerketan erabiltzen ditugun tresnak beste eremu batzuetara eramango bagenitu? Politikara, adibidez? Gizarte gisa erronka txiki eta handiei egin behar diegu aurre, eta batzuetan errealitatea oso konplexua da. Baina ebidentziei muzin egin eta erabakiak modu arbitrarioan hartzeak ez digu inolaz lagunduko.

Zer-nolako kultura politikoa behar dugu honetarako? Lehenik, gardentasuna. Politika publikoak hartu behar direnean, dagoen informazio osoa publikoa izan behar da. Bigarrenik, gobernantza parte-hartzailea. Erabakiak hartu aurretik, komunitatearen ahots eta bizipenak jaso behar dira. Hirugarrenik, metodo zientifikoa erabiltzen duena. Hartzen diren erabakiak ebidentzietan, argudio eta arrazoietan oinarritu behar dira. Laugarrenik, eta lehenera buelta, komunikazio gardena. Politika publikoek oinarri izan dituzten ebidentzia eta arrazoiak ondo azaldu behar dira. Hartzen diren erabakiak komunitate osoaren onurarako eragin dezaten.

Hartza



JOKIN DE PEDRO Idazlea

Egu, Mari, Ortzi eta hainbat jainko kristau-aurrekoren berri iltzaturik geratu dira gure ipuin, leku-izen nahiz eguneroko hiztegiak. Ez diogu, baina, hartzari hainbeste erreparatu. Izan ere, gizakiak hartzen ondorengoak zirelako ustea garbi azaltzen da Euskal Herriko tradiziozko sineskeran. Ipuinetan, Hartz Handi eta emakume bat ziratekeen lehen gizakiaren gurasoak.

Hartza ehizatu izan da, egia, baina ez beste edozein basapiztia bezala, begirunez edo zerbait bidegabea egitearen nolabaiteko beldurrez baizik. Joan den mendean Zuberoako hartzen ehizan parte hartua zen Dominique Prebendek esana: «Hartzaren hiltzeak ur gaixtoa ekartzen dizu. Hartza gizakia bezalakoxea da, dena jentea duzu». Gero, haren aita Petirik isilean erantsi omen zuen: «Lehenagoko euskaldunek gizona hartzetik jiten zela sinesten zuten. Gizona hartzak egina da».

Badakigu, halaber, hartza eraildakoan «hartzaren kantorea» eskaintzen ziotela, haren hitzik ez doinurik iritsi ez bazaigu ere. Zerura joatean euskaldunak aipatu eta aitortu beharreko lehen kontua hartzekiko jokabidea omen da, San Pedroren ondoan zeruko hartza bizi baita, bertako atera doazen giza arimek lehenengo galdera egiteko: «Nola jokatu duzu hartzekin?».

Puntua eta kontrapuntua **Nekazaritza eta klima**

Gu gara arazoa



*Lehenbizi lehorte,
txingorra hurrena;
baratzerako ez da
gauzarik onena.
Aspaldikoa eta
larria problema.
Zer egin genezake
konpontzeko dena;
eguraldia eta
nekazariena?*

**ITXASO
PAYA
RUIZ**
Algorta

*Bi arazo horrek dinot
bakarra direla:
biak klima aldaketak
sortu dituela.
Autokritika egin,
ezin da bestela!
Arazoa gu gara,
uste dot horrela,
ta konponbidea ere
gugan dagoela!*

**PERU
DE PEDRO
LARREA**
Gorliz



Lander Alvarez de Eulate Leioako Udaleko lorezaina

«Leioaztarrentzako Pinosoloko basoa oso berezia eta esanguratsua da»

Basajaun da Pinosolo parkeko biztanle berria. Elementu organikoakaz eginda, Udaleko lorezain-brigadak bizitza eman dio Lander Alvarez de Eulateren ideiarri.

TESTUA: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

A benduan, Pinosolo parkean azaldu zen Basajaunen eskulturaren sortzailea da Lander Alvarez de Eulate. Leioako Udaleko lorezaintza-brigadako kidea da, eta Mikel Ibañez de Aldekoa eta Mikel Ibarrondo Soba bere lankideakaz batera eraiki du eskultura ikusgarria.

«Euskal mitologiak txikitatik erakarri nau; horrez gain natura eta eskultura ere asko gustatzen zaizkit, eta beti ibili izan naiz probatzen: garai batean, motozerrarekin egurrezko irudi batzuk egin nituen, eta burdinarekin ere egin ditut lan batzuk», azaldu du leioaztarrek.

Kontatzen duenez, bolada batean Arratian ere bizi izan zen eta Frantziako Les Grandes Personnes konpainiagaz

batera Maurizia, Faso eta Leon musikari ospetsuen txo-xongilo erraldoiak egiteko prozesuan ere parte hartu zuen. «Irudimena eta eskulturak egiteko interesa nuen, eta Pinosolo basoa leioaztarrentzako zerbait berezia eta esanguratsua da, basoa bihurtutako antzinako lorategia delako, ez da beste parkeen modukoa. Beraz, modu naturalean hori balioan jartzeko zerbait erakargarria egin nahi genuen, eta Basajaunek hori dena lotzen du: mitologia, eskultura eta naturari babesa eta errespetua», azaldu du Alvarez de Eulatek.

Eskultura eskura izan dituzten materialakaz egin dute: «Biltegian topatu ditugun gauzak erabili ditugu: belarriak zedro baten enborrak dira, hortzak hortik botata zeuden listoi batzuk, egitura lurrez egindako menditxo bat da eta sare batekin eusten zaio formari. Begiak Sortzen ludoteka-ko Eider Libanok margotu zituen».

Aurrera begira, ideia gehiago dituztela ere aurreratu du: «Basoa eta ingurua errespetatuz eta horren nortasuna galdu gabe, ibilbide bat egin nahiko genuke, Mikel Ibarrondori esker herriko lorategietan lan nahiko polita ere egin baitugu eta hori ere herrian ezagutzera emateko». ◀



**Muturreko
eguraldi aldaketek
eragina izan dute
gure uztetan?**



Lehortea, bero-kolpeak, euri-jasak, haizeteak, kazkabarra... Euskal Herriko baserritarrak beti egon dira zeruari begira, eguraldiari so, eta orain, joera hori gizarte osora zabaldu da ere. Azken urteak, 2022 eta 2023 batez ere, ezohikoak izan dira oso, muturrekoak; bada, eguraldi aldaketa horiek eragina izan al dute bertoko nekazaritzan ere? Erantzun bila joan gara.

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO**

ARGAZKIAK: **IKER TORRE NAVARRO · HODEI TORRES** ▶

A

kabuko aldian, eguraldia gero eta estremistagoa da». «Eguraldiari so bizi gara, eta urarekiko gero eta menpekoagoak gara». Horiexek dira Lander Labajo eta Gabriela Frances Uribe Kostako laborarien hitzak, hurrenez hurren. Izan ere, azken urte bietako udak ohi baino beroagoak izan dira, euri-egun gutxiakoak; hitz bakarrean: ezohikoak. Hartara, denon ahotan egon den gai bat izan da eguraldia, eta halaxe ondoriozta-

tu du oraintsu ere Copernicus (C3S) Europar Batasunak klima aldaketa aztertzeko zerbitzuak. Horrek ohartarazi du inoiz neurtu den urterik beroena izan zela iazkoa munduan, eta ez bakarrik udan. Industriaurreko datuak alderatuta, emandako datuen arabera, batez beste ia 1,5 gradu berotu zen planeta 2023an, eta igoera hori orokortua izan zen urte osoan. Baina, zer-nolako eragina izan du tenperaturaren igoera horrek, eta eguraldiak orokorrean, gure landa-eremuan?

Gabriela Frances baserritar lemoiztarrak azaldu duenez, nekazariak eguraldiaren arabera bizi dira, horri lotuta antolatzen baitute euren lana: «Lurra sasoiaren egon behar da lantzeko eta, euria eginez gero, beste behar mota batzuk egiten ditugu». Ildo horretan, azpimarratu du tenperatura altuagoak bizi izan ditugula azkenaldian hemen, Uribe Kostan, eta euri-egun gutxiago dagoela ere. «Neguan bazka izateko fardoak egiten hasi nintzeneko sasoiak gogoratzen ditut; zaila zen garai hartan uda hasieran lau egunez jarraian eguraldi ona izatea belarra lehortu ahal izateko».

Beroari dagokionez, Lander Labajo berangoztarrak dio muturreko tenperatura altuek ortuariak eta fruituak erre ditzaketela, «kolpe handiak daudenean batez ere». Aitortu du, besteak beste, berari intxaurrak, tomateak eta hostodunak erre zaizkiola inoiz: «2022an batez ere, bero-kolpe izan ziren egun asko izan genituen, eta oso kaltegarriak izan ziren;

2023an, berriz, ez horrenbeste». Azken urte horri dagokionez, orokorrean aurrekoa baino uda «epelagoa» izan zen arren, Labajok deitoratu du abuztuaren amaieran eta iraila-urrian muturreko tenperatura altuak bizi izan genituela gurean, 40 gradutik gorakoak; ondorioz, ordurako jaso barik zegoen uzta eragina izan zuen bero horrek, hala nola sagarrondoetan. «Irailean, beroagaz kolpatuta egon ziren sagar gehienak; ubeldu egin ziren. Horiek sagar-ura edo zukua egiteko baliok dute; jateko, arinago ustelduko dira».

LEHORTEA URIBE KOSTAN? 2022a, oster, akorduan du bizi izandakoengatik; «sikate egoera bizi izan genuen udan, euri askorik gabe». Iaz, 2023an, ordea, lehorterik ez zen egon gurean, «sikate umela egon da, euri asko egin barik, hezetasuna egon delako». Izan ere, gogoratzen duenez, iaz, maiatzean, euri asko bota zuen, udako egun asko lainotutakoak izan ziren eta, horri esker, aguantatu zuten udaldia, besteak beste.

Izan ere, ura bizitza da, eta landareek bereziki beharrezkoa dute hori hazteko. Uribe Kostako baserritariek biek gogoratzen dutenez, Euskal Herriko beste hainbat puntutan ez bezala, hegoaldean batez ere, gurean oraindik ez da arazoa euri eta ur falta. «Aldaketa igartzen da hemen, Kantauri isurialdean, baina ez dago arazorik orokorrean», dio Labajok. Horri helduta, Francesek gaineratzen du, orain, euria egiten duenean, askotan euri-jasa handiak dira, eta egiten ez duenean, luzaroan ez duela botatzen. «Eguraldia estremistagoa bilakatu ari da», ondorioztatzen du Labajok.

AHUAKATEAK URIBE KOSTAN. 2023ko eguraldia denon ahotan egon da hainbatetan: bero handia ezohiko egunetan, euri falta, euri-jasa handiak, uholde-urak, haizeteak... Halako egoerak bizi izan genituen orain dela urte bi ere, 2022an, eta, Labajoren esanetan, uztari dagokionez, urte hori izan zen okerragoa gurean iazkoa baino. Hala ere, aipatzeko modukoak ere bizi izan zituzten iaz. Udan, euri-egun asko egon ez ziren arren, giroa hezea izan zela dio berangoztarrak. Iraila-urrian, berriz, euriteak heldu ziren eta asko bota zuen. «Orain, euria datorrenean, askotan, lurrak ez du horrenbeste kantitate aguantatzen, ez du jasotzen, eta askotan gauzak eroaten ditu».

Labajok dio eguraldiaren aldaketa horiek eragindako uzta-aldaketa puntualik ez duela igarri oraindik, baina bai orokorrean: «Lehen ez bezala, ahuakatea produktiboa da orain hemen, eta guk ere horiek jasotzen ditugu, handi-handiak; 30 ahuakate-zuhaitz ditut, orain dela hainbat urte landatutakoak».



Lander Labajo, Berangon, bere negutegiaren barruan.



Gabriela Frances, Lemoizen, bere behiak atzean dituela.

Limoiondo eta zuhaitz zitrikoak ere, orokorrean, lehen esaten zen etxearen ondoan landatu behar zirela haize-babesean egoteko, eta, orain, edonon jar daitezkeela ondorioztatu du berangoztarrak bere baserria inguratzen duen landako zuhaitzei erreparatuta, nonahi aurki daitezkeenak. «Izan ere, orain, zenbat aldiz egiten du leia? Hiru bider-edo, ez du hotz handirik egiten».

Lemoiztarrak, bere aldetik, zehaztu du, berbarako, lehen zailagoa zitzaioela tomatea aire zabalean landatzea, baina orain, udan, horrenbesteko hezetasunik ez dagoenez, errazagoa zaiola hori lantzea negutegitik kanpo. Kontrara, lehen ureztatzeko beharrik ez zuten hainbat labore, hala nola indaba, patata eta kipula, deitoratu du orain beharrezkoa duela hori egitea. «Lehen, ortuari asko erein ostean, euri-urarekin nahikoa zen, baina orain, aldiro, ureztatu behar izaten ditugu», gaineratu du Labajok. 2022an, berbarako, berangoztarrak gogoratzen du egunero lau ordu eman behar izan zituela baratzea ureztatzeko. «Egunero alde bat egiten nuen, baina beroa handia zenez, lurra zeharo sikatzen zen segituan. 2022a inoiz baino sikuen zegoen lurra, eta inoiz baino gehiago ureztatu behar izan nuen».


UDAKO UZTA, LUZEAGOA. Labajo orain dela 20 urte hasi zen laborantzian, eta, ordutik, azpimarratu du ez duela aldaketa handirik sufritu uztari dagokionez, «baina bai igarri». Berbarako, udako uzta luzatu egin dela dio, baina ereiteko edo landatzeko sasoa bera izaten dela azpimarratzen du: «Hemen beti izan da San Isidrolik aurrera, ordutik lurraren tenperaturak onartzen duelako zuztarren edo sustrairen ugaltzea. Txomin belarra da erakusle on bat da lurraren tenperatura egokia dela esateko, eta horretan ez dut igarri aurreratu edo atzeratu denik». Izan ere, azaldu duenez, bero-egunak ohi baino lehen heldu arren, horrek ez dio eragiten gehiegi lurraren tenperaturari.

Uzta kopuruari dagokionez, Labajok ez du harreman zuzenik ikusten eguraldiaren joeraren eta jasotakoaren artean: «Klima aldaketa arazo orokor bat da, gure bizitzetan eragiten duena, ez beren-beregi baserriko mundukoa, eta are gutxiago hemen. Krisi momentuak daude uda sasoiari, bai, baina oso une laburrik dira, momentuz». Aldaketak, izatekotan, urtero landa gobernatzeko moduagatik dela dio: «Zergatik sartzen da ugerra? Umedadegatik, baina beti egon da arazo hori, eta asmatu egin behar da unean-unean lurra lantzeko».

EZOHIKO BISITARIAK. Horri lotuta, baina, ezohiko bisitariak heldu zaizkigu hona azken urteotan. Francesek dioenez, inguruotan ezezagunak

Udako tenperatura maximoak 2022 eta 2023an

Datuak: Euskalmet-Galeako estazio meteorologikoa (ekainetik urrira)



94,6
litro euri-ur bota zuen metro koadroko ekainetik irailera 2022an.

195,4
litro euri-ur bota zuen metro koadroko ekainetik irailera 2023an, aurrekoaren bikoitza.

60
egun ia-auririk bota barik 2022an uztailean eta abuztuan; hilabete horietan 4 euri-egun egon ziren guztira, 11 litro metro koadroko metatuta soilik.

ziren plagak dituzte orain, hala nola tomatearen sitsa (*Tuta absoluta*), lastodun landareez elikatzen den zizare soldadua (*Spodoptera exigua*) eta behiei sukar hemorragikoa transmititzen dien eltxoa. «Ez dakit horien guztien presentzia aldaketa klimatikoaren ondorio diren, baina lehen ez genituen ezagutzen inguruotan».

PRODUKTUEN GARESTITZEA. Aipatutakoak gorabehera, aldaketa askorik ez dela igarri diote baserriar biek, zorionez, Kantauri isurialdean oraindino baldintzak egokiak direlako lurraren ustiatetarako. Hala ere, zenbat eta hegoalderago jo, egoerak orduan eta okerrera egiten duela deitoratu dute. «Hegoaldean su-beroa dago eta, besteak beste, pentsua asko garestitu egin da». Abereak ere badituzte lemoiztarrak eta berangoztarrak eta, azken honek dioenez, piztontzako pentsua hegoaldeetik ekarri behar izaten du, bertan ekoizten baita zereala. «Urtero garestitu egiten ari da; doblea bi urtetik hona. Hori bai igartzen da, hegoaldean asko sufritzen ari dira bero horregaz».

Horrek arazoak ekar ditzake ustiatze baten errentagarritasunean. Are, berangoztarrak dioenez, errentagarritasuna atera behar bada, eta intsumoak edo sargaiak asko badira, «oso zaila da aurrera egitea». Halakoetan, Labajok uste du ekoizle asko bizirik dirautela produkzio handia dutelako, eredu industriaren pare «bestela ezinezkoa da». Hala ere, bere kasuan, eredu txikiago baten alde egiten du. «Aukera bakarra da txiki-txikira jotzea, norberak dena egitekoa, zirkulua ixtekoa. Posible da, baina horretarako asko izan behar gara, bestela, nor elikatuko dugu? Duela 100 urte baino gutxiago, populazioaren ia erdiak zuen inguruan nor edo nor lurra lantzen zena; orain, oso txikia da portzentaje hori». ◀

Getxo Lizitazioa

Usategiko taberna-jatetxea berriro zabaltzeko prest



2015ean itxi zuten, aurreko baimena bukatuta.

Algortako Usategi parkean dagoen izen bereko jatetxe-taberna ustiatzeko emakida lizitaziora atera du Udalak. Interesatuek 15 urterako alokatu ahal izango dute lokala –5 urteko luzapenagaz– eta 2.262,48 euroko kanona ordaindu beharko dute hilabetez, BEZ barne. Eskabideak urtarilaren 23tik aurrera egin ahal izango dira. Lokalak 221 metro koadroko azalera erabilgarria du, eta 29 metro koadroko terraza bat, hegoaldera begira dagoena. Udal-azpiegitura hori joan den 2015etik egon da itxita, eta, ordutik, hainbat berrikuntza egin dituzte bertan. 9 urteotan, lokalak hainbat tirabira sortu ditu, berrikitzea gehiegi luzatu delakoan. ◀

Getxo Artea

Getxoartek arte garaikidea zabalduko dio publikoari

Getxoarteren eskutik itzuliko da udalerrira arte garaikideekiko hitzordua, otsailaren 2tik martxoaren 10era. Programaren 21. edizio honetan, ohi bezala, jarduera eta tokiko sorkuntza sustatu gura dira. Getxoartek askotariko jarduerak hartuko ditu Romo Kultur Etxean eta beste leku batzuetan; horietan, besteak beste, erakusketak, hitzaldiak, tailerrak eta topaketak izango dira. Horregaz guztiagaz batera, «Artista bat auzoan» ekimenaren edizio berri bat egingo dute alde aurretik. Horren bitartez, tokiko zortzi sortzaileen sormen prozesuak zabalduko dituzte, urtarilaren 31ra bitartean Getxo Kulturako sare sozialetan argitaratuko diren bideoen bidez. ◀

Getxo Auzoko Elkarrizketak

Euskarak eta bestelako hizkuntzek duten egoera, aztergai

Euskaltzaileen Topaguneak eta Egizuk Auzoko Elkarrizketak egitasmoa jarri dute martxan udalerriko hizkuntza aniztasunari buruzko azterketa egiteko. Lansaio irekia egingo dute otsailaren 18an.

Udalerrian bizi den hizkuntza aniztasunaren zereginari ekiteko asmoz, Getxoko hizkuntza aniztasunaren egoera zer-nolakoa den aztertu gura dute. Horretarako, Euskaltzaileen Topaguneak eta Egizuk Auzoko Elkarrizketak izeneko egitasmoa jarri dute martxan, norbanakoei eta eragileetako kideek haien bizipenak eta testigantzak eman ditzaten. Saioa otsailaren 18an egingo dute, domekan, 17:00etatik aurrera, Azebarri kulturgunean. Arduradunek azaldu dutenez, hiru orduko lansaioa izango da, eta, bertan aterako diren ideiak oinarri hartuta, aurrera ekiteko bide-lerroa zehaztuko dute, besteak beste. Izan ere, helburua da Euskal Herrian euskararen erabile-

ra ohikoa eta eroso izatea eta, hori lortzeko, ezinbestekoa ikusten dute hizkuntza aniztasunaren zereginari ekitea, «betiere, ondorengo bi faktoreak elkar gurutzatzen direlako: euskararen normalizazio prozesua eta euskal jendarteren aniztasuna». Hori horrela, lansaio horretan, errealitate bi horiek gorpuzten dituzten pertsonak batu gura dituzte: alde batetik, euskararen normalizazio prozesuan interesa dutenak; eta, bestetik, bertoko jendartera aniztasuna eta aberastasuna ekarri duten horiek. «Bilaketa hau, gure prisma eta lekutik soilik eginez gero, zailtasun gehiago izango ditugu zabaltzeko, jende anitza elkartzeko, baina aliatuak topatzen baditugu errazago egingo dugu lan», azaldu dute. ◀

Getxo-Leioa Itsasadarraren azpiko tunela

Ezinegona sortu du azpiegitura berriak

Itsasadarraren alde biak lotuko dituen tunela eraikitzeke lanak geldiaraztea eskatu dute Getxoko EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek. Izan ere, besteak beste, Aldundiaren ingurumen-inpaktu txostena aipatuta, salatu dute azpiegiturak trafikoa % 33 handituko lukeela. Era berean, deitoratu dute tunelak Getxo eta Leioa arteko berdegune bakarra kaltetuko lukeela, Artatza parkea, obrek inguruko zati handi bat hartuko lukeelako. Horrez gainera, azpimarratu dute «obra faraoniko» horrek udalerriri bien arteko ikaste-



Azpiegiturak trafikoa areagotuko luke.

txeetako patioaren zati handi bat suntsituko lukeela, baita inguruko bizilagunei kalte ugari eragin, «hala nola zarata, oinezkoentzako loturak desagertzea eta espaloien estutzeaz». ◀

Leioa I. Kirol Gala

Leioako kirolarien lana aitortzeko gala egin dute

Urtarrilaren 18an, Leioako Udalak herrian beren lorpenengatik nabarmendu diren kirolarien lana aitortzeko ekitaldia egin zuen.

Leioako Udalak beren lorpenengatik nabarmendutako herriko kirolarien eta kirol-taldeen lana aitortzeko gala egin zuen urtarrilaren 18an, Kultur Leioako auditoriumean. Halaber, ekitaldi horretan herrian kirol-jarduera osasungarria sustatzeagatik beste 25 kirol-entitatek ere jaso zuten aintzatespena.

Iban Rodriguez alkatea buru zela, bost sari banatu zituzten Leioak antolatu duen I. Kirol Galan. Ohorezko saria iaz hil zen Juan Ramon Rodriguez Leioa Saskibaloi Taldekoko presidenteari eman zioten, taldearen sorreran eta presidente moduan egindako 28 urteetako ibilbidean egindako lana omentzeko.

Horrez gain, Irristaketa Leioa Taldeko Ane Puccinik jaso zuen kirolaririk onenaren saria, aurreko urtean Patinaje Artistikoko Txapelketan lortutako arrakastengatik. Aldiz, Club Sakoneta Gimnasia Erritmikoko



Juan Ramon Rodriguez, ohorezko saria

1990ean, Leioa Saskibaloi Taldearen aitzindari eta sortzaileetako bat izan zen Juan Ramon Rodriguez Juanra. Horrez gain, taldeko presidentea ere izan zen 28 urtez, eta taldeagaz lotura izan zuen aurreko 2023ko otsailean zendu zen arte.

Taldearentzat izan zen talderik onenaren saria.

Kirol Zaleak elkarteak jaso zuen kirol ibilbideari saria, 40 urtez Leioan ez ezik, Bizkaia eta nazioartean ere herri kirolak sustatzen eman duten lanagatik. Azkenik, kirola sustatzeagatik Irabaki ere izan zen saritua, 20 urtetako ibilbidean oinarritzko kategorietan eta emakumezkoen kirolean kirola bultzatzeagatik.

Epaimahaia Estibaliz Bilbao Kultura eta Kirol zinegotziak eta udal-langileek osatu zuten, eta Leioako kirol erakundeek egindako proposamenen artean aukeratu zituzten sarituak.

AINTZATESPENAK. Gainera, Leioako Kirolaren lehen gala horretan, Udalak herriko 25 kirol entitateek egiten duten lana eta egiten duten ekarpena ere aintzatesi zuen, «Leioa kirol eskaintza zabala eta osasungarria duen udalerrria izateagatik».

Hala, sariak banatu aurretik, kirol arloko leioaztar erakunde guztiek esker ona jaso zuten Udalaren eskutik.

Plentzia 2023-2027 agintaldiko gobernu-plana

Plentziako Udalak agintaldi honetako gobernu-plana aurkeztu du

Plentziako gobernu-taldeak 2023-2027 agintaldirako hainbat proiektu batzen dituen gobernu-plana aurkeztu du. Arduradunek azaldu dutenez, egitasmoak «norabide aldaketa adierazgarria ezarriko du, eta ikuspegi ausarta zirriborratzen du datozen lau urteetarako».

Diotenez, proposamenek «konpromiso sakona» erakusten dute jasangarritasunagaz, berdintasunagaz eta herritarren parte-hartze aktiboagaz, eta hori «ahalik eta gardenenak eta errealistena» izaten ahalegindu direla ere adierazi dute. Gobernu-planaren berri emateko argitaratu duten liburuxkan, agintariekin 80 neurri inguru azaltzen dituzte, hirigintza, kultura, kirola, udalerrriaren bizi-

Aurkezpena eta liburuxka

Gobernu-plan berriaren aurkezpena urtarrilaren 31n egingo dute Goñi Portalen, 18:30ean. Era berean, proiektuen berri ematen duen liburuxka etxetan banatuko dute; udal-webgunean ere dago eskuragarri.

garritasuna, ekonomia edo ingurumena bezalako arloen inguruan.

Hauek dira, besteak beste, Udalak azaldu dituen egitasmoetako batzuk: Arpillaoko lokalak eta aparkalekua behin behinean irekitzea, merkataritza eta ostalaritza bultzatzeko neurriak, hiribilduko HAPO garatzea, metro-geltokiaren ingurua urbanizatzea, itsasadarreko pasealekua konpontzea, bidegorri bat eskatzea Euskal Herriko Itsasertz Mugarteari, Aranzadik herriko memoria historikoa azter dezan hitzarmena sinatzea eta euskara sustatzeko neurriak. Udalak urtarrilaren 31n, Goñi Portalen aurkeztuko du bere bide-orria; bitartean, proposamenak biltzen dituen liburuxka ere argitaratu dute. ◀

Erandio Solasaldiak

Adineko emakumeen bizipenak bildu gura dituzte

Egitasmoagaz hasteko, Erandioko Udalak Altzagako adineko emakumeen esperientziak, iritziak eta jakintzak batuko ditu jubilatuen egoitzan egingo dituzten saioetan.

Bizipen solasaldiak izeneko egitasmoagaz, Erandioko Udalak herriko emakume nagusiei ikusgarritasuna eman eta euren errealitatea, iritziak eta bizi-baldintzak jaso gura ditu. Horregaz hasteko, 10 saio egingo dituzte eguaztentean, urtarrilaren 17tik martxoaren 20ra bitartean, Altzagako Jubilatuen Elkartearen lokalean, 18:00etatik aurrera.

Topaketetan landu beharreko gaiak parte-hartzaileek adostuko dituzte aldez aurretik, hala ere, Udaleko arduradunek hainbat gai planteatuko dizkiete bertaratuko direnei, hala nola beren bizitzetan izan duten zaintzaile papera eta horietan izan duen eragina; egungo gizartean adineko emakumeaz duten pertzepzioa; feminismoa; berdintasuna...

Jorge Gonzalez Berdintasun zinegotzi delegatuaren hitzetan, «gure bizilagunak elkartu eta beraiei dagozkien gaiez hitz egiteko gune

Solasaldiak ahots-grabagailuz grabatuko dituzte eta horietan parte hartzen duten emakumeek erabakiko dute zer eta nola gizarteratu emaitza; izan ere, egitasmoaren azken fasean topaketetan bildutakoa Erandioko herritar guztiakaz partekatu gura dute.

bat izango da, babesaren sentsazioa eta ahal-duntzea indartzeko, hain zuzen ere. Adineko emakumeei ikusgarritasuna emango dien proiektua ere izango da, beraien errealitateari, iritziei eta bizi-baldintzei dagokienez».

DOKUMENTATUTAKO SAIOAK. Iragarri duteenez, saioak ahots-grabagailu bidez grabatuko dituzte, bilketa-dokumentu batean saioetan partekatutakoaren transkripzio zehatza egiteko. Dokumentu horretan, lehenik eta behin, proiektua nola egin den azalduko dute, adineko emakumeen esperientziak baliotsiko dira eta prozesua garatuko da.

Proiektuaren emaitzak saioak jasoko ditu, parte hartuko duten emakumeen pertsona, iritzi eta erabakiak erabat errespetatuz. Azaldu dutenez, helburua solasaldiak beraienak egitea da, tertulia horietatik igaro izanaren adierazgarri izan daitezen.

Proiektuaren azken fasean, esperientzia horien emaitzak erakutsi gura dizkiete Erandioko herritar guztiei, eta parte hartuko duten emakumeek erabakiko dute zein den formaturik egokiena: erakusketa, hitzaldi irekiak, dokumental bat... ◀



Ekarretaratzea faxismoaren aurka

Dozenaka herritarrek elkarretaratzea egin zuten urtarrilaren 12an, Altzagako metro-geltokiaren parean. Bertaratutakoek aurreko abenduan herrian azalduzako pintaketa faxistak eta sare sozialen bitartez egindako mehatxuak gaitzetsi zituzten, eta aldarrikatu zuten Erandion gorrotoak, homofobiak, arrazakeriak eta indarkeriak ez dutela lekurik. © IKER JALON

Urduliz Mecaner lantegiaren itxiera

Alternatiba ekosoziala eraikitzeko inplikazioa eskatu du Mecanerrek

Urtarrilaren 10ean eta 11n greba egin zuten Urdulizko Mecanerreko beharginek euren lantegiaren itxiera salatzen eta sortu gura duten alternatiba ekosozialaren alde egiteko.



Mecanerreko langileek lau hilabete daramatzate borrokan. IKER TORRE NAVARRO

Urtarrilaren 11n egindako manifestazioaren hasieran, langile batzordeak salaketa bat jarri zuen enpresaren aurka lan-ikuskaritzan enpleguari buruzko informazio-eskubideak urratzeagatik, etorkizunean enpresa berregituratzeagatik eta plantillako lan-kontratuak erabat amaitzeagatik, enpresak hasieratik edukitako «asmo txarra» nabarmentzeaz batera. Gainera, Enplegu Erregulazioko Espedientea ziurrenik 2024ko martxoaren 1ean hasiko dela gogorarazi zuten.

Horregatik, langileek administrazioen eta gizartearen inplikazioa eskatu zuten egoera honi irtenbide bat emateko.

Hala, manifestazioaren amaieran, Industria Sailari zuzendutako mezu bat zabaldu zuten egun bizi duten errealitatearen berri emate-

ko: «Lau hilabete daramatzagu borrokan eta fase erabakigarri batean sartu gara. Momentu honetan, 148 lanpostuen bilakaera eta langile horien etorkizuna ez ezik, herri eta eskualde baten etorkizuna ere jokoan izango ditugu. Hori guztia kontuan hartuta, instituzioek beren erantzukizunari heldu eta konpromisoak hartu behar dituzte».

Halaber, nabarmendu zuten Mecanerreko langileek proposamenak dituztela, eta bere etorkizunaren jabe izan gura dutela, baita eskualdeko industriaren protagonista ere. Hori dela eta, mobilizazioak egiten eta instituzioak harremanetan jarraitzeko asmoa dutela azpimarratu zuten manifestazioan.

Aitzitik, deitoratu zuten hori ez dela posible «administrazioen eta gizartearen ekarpenik eta parte-hartzerik gabe».

Berango Proiektuak

Bidegorria egingo dute partaidetza bidezko aurrekontuakaz

Daborduko Berangoko Udalak partaidetza bidezko 2024ko aurrekontuen emaitzen bigarren fasearen txostena argitaratu du. Hala, boto gehien jaso dituzten eta 2024ko aurrekontuen kargura gauzatuko diren proiektu bi aukeratu dituzte herritarrek.

Alde batetik, Getxotik Sopelara doan bizikleta-proiektua hautatu dute, bidegorri berriak eraikiz. Horregaz batera, bizikleta eta oinezkoentzako bizikidetzarako seinaleak ere jarriko dituzte. Proiektu horrek 200 bozka jaso ditu eta 35.000 euro inbertituko ditu Udalak azaldutako emaitza egikaritzeko.

Beste alde batetik, ibai-parkea sortuko dute Itze bidea naturalizatuko duen oinezkoentzako ibilbide bategaz. Bigarren proiektu horrek 190 bozka jaso ditu eta Udalak 110.000 euro bideratuko ditu horretara.

Irailaren 11tik 24ra Berangoko 2024ko aurrekontu parte-hartzaileen lehen fasea burutu zen. Bertan, 221 pertsonak parte hartu zuten eta guztira 419 proposamen bildu ziren. Gainera, uztailan herriko haurrentzako udalekuan egindako lan-saioen ondorioz, Udalak zuzenean eta bozketa-fasetik igaro gabe hainbat jardura egiteko konpromisoa hartu zuen. Esaterako, kultura-gelarako jokoak eta bideo-kontsoletako aginteak erostea.

Berango Komunitatea

Kezka sozialei buruz berba egiteko talde komunitarioa sortu dute

Proiektu berri bat jaio da Berangan: talde komunitarioa. Helburua da kezka edota zalantza sozialei buruzko elkarriketak kolektibizatzea aditu baten gidaritzapean. Modu horretan, Berangoko parte hartzaileek buruan dituzten ezinegonak libreki partekatu ahal izango dituzte. Taldea astelehen guztietan bilduko da Berangoko Gazte LABean, arrastiko 18:30etik 20:00etara. Bilera guztietan esperientzia handia duen aditu bat egongo da, parte-hartzaile guztien arteko elkarriketak dinamizatzeko. Gainera, bileretan landutako gaiak adituak zein parte hartzaileek proposatu ditzakete. Jakinarazi dute taldea edozein adineko lagunei zuzenduta dagoela.

Urduliz Mendi-talde berria

Belatzgorri mendi kluba jaio da Urdulizen, eta daborduko 70 kide ditu

Urdulizko Belatzgorri mendi-taldearen aurkezpena egin zuten joan den urtarilaren 12an herriko kultur etxean. 130 urduliztar hurbildu ziren hitzordu berezira elkarte berriaren inguruko informazioa jasotzeko asmoz eta, antolatzaileen esanetan, ekitaldiak «izugarritzko arrakasta» izan zuen; izan ere, aste oso gutxitan daborduko 70 bazkide lortu dituzte.

Klubaren aurkezpenaren ostean, Ibilkemi elkartearen eskutik *Konfiantza itsua* mendi proiektzioa ikusteko aukera izan zuten. Gainera, federatuek haien txartelak jasotzeko aukera izan zuten egun horretan. ◀

Uribe Kosta Kalamua

Mankomunitateak bat egin du kalamuaren kontrako kanpainagaz

Gazteen osasuna eta ongizatea babestu eta bermatzeko asmoz, Mankomunitateak babesa eman dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak kalamuaren kontsumoari buruz bultzatutako sentsibilizazio-kanpainagaz. Helburua da 14 eta 25 urte bitarteko gazteak kontzientziaztea eta kalamuaren kontsumoari buruzko mito eta uste faltsuak agerian jartzea; ondorio kaltegarriei buruzko pertzepzio errealista egon dadin laguntzea; eta kalamurik gabeko aisialdiak eta ondo pasatzeko ereduak bultzatzea. ◀

Sopela Aurrekontu hazkundera

Udalak aurrekontua indartu du proiektu berriak sortzeko

Sopelako Udaleko diru-laguntzak ebatzi dira enpresa-proiektuetara bideratutako aurrekontuaren hazkuntzagaz. 15.000 eurotik 25.000 eurora igo dituzte laguntzak.



Helburua da babes finantzarioa ematea eta tokiko ekonomian eragin positiboa sortzea.

Tokiko Udalak proiektu berriak sortzeko bidean eskari handia dagoela onartuta, aurrekontua indartu du diru-laguntzen azken edizioan, 15.000 eurotik 25.000 eurora igoz. Gainera, 20.000 euro esleitu zizkion bigarren lineari eta 10.000 euro hirugarrenari. Funts horiek elkarregaz konektatuta daude, eta, horri esker, lerro batean erabili ez diren baliabideak erabiltzen dira

beste baten beharrak asetzeko. Toki Garapeneko zinegotzi Eder Garciak azpimarratu du Udalak ohiko enpresa-sarea indartzeko eta babesteko konpromisoa hartu duela: «Gure helburua baliabide horiek gure erkidegoan gehien behar dutenengana modu eraginkor eta eraginkorrean iristea da. Babes finantzarioa eskaintzeaz gain, tokiko ekonomian eragin positiboa eta iraunkorra sortzea du helburu». ◀

Uribe Kosta Garraio publikoa

Autobus-lineen sarea berrikusteko eskatu diote Foru Aldundiari

Sopela, Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia eta Urdulizko udalek eskatu dute Areta-Arminza autobus linearako sarbidea bermatzeko, besteak beste.



Urdulizko ospitalera garraio publikoaren bidez konektatzea gura dute.

Larrialdi klimatikoari aurre egiteko eta garraio publikoa aktiboki sustatzeko premia larria ikusita, Sopela, Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia eta Urdulizko udalek, hiriarteko garraio-zerbitzuaren hurrengo esleipenari begira, eskaera formal bat egin diote Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio, Mugikortasun eta Turismo Sailari, eskualdeko autobus-lineen sarea sakon berrikusteko eta aztertzeko. Zehazki, eskatu diote Areta-Arminza autobus linearako eta Urdulizko ospitalerako sarbidea bermatzeko Atxabiribilko eta Arrietarako auzotarrentzat, baita A2166 Uribe Kosta-UPV/EHU linearako maiztasunak handitzea ere. Bidalitako dokumentuak eskaera espezifiko bat jasotzen du: Sopelako Atxabiribil (Kukullu kalea) eta Arrietara (Solondota kalea) auzotarrek A3451

Areta-Arminza lineara sarbidea izatea. Halaber, nabarmendu dute oso garrantzitsua dela auzokide horiek Urdulizko ospitalera garraio publikoaren bidez konektatzea, bai eta A2166 Uribe Kosta-UPV/EHU linearako maiztasunak handitzea ere, zerbitzu hori dagoen eskaria egokitzeko asmoz. Sopelako alkatea den Guruzne Carrason alkatearen hitzetan, «berebiziko garrantzia du Atxabiribil eta Arrietara kaleetako bizilagunei A3451 Areta-Arminza linearako sarbidea bermatzea, baita Urdulizko ospitalerako zuzeneko konexioa ezartzea ere garraio publikoaren bidez, zerbitzu horiek funtsezkotzat jotzen baitira eremu horietako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko». Halaber, nabarmendu du komunitatearentzat funtsezkoak diren zerbitzuetarako sarbidea bermatzea ere beharrezkoa dela. ◀

Lemoiz Kirola, merkeago

Kirol instalazioetarako abonua sistema berria ezarri dute Lemoizen

Berriki tokiko kirol instalazioen araudi berriua onartu du Lemoizko Udalak eta aldaketa nabarmenena abonua sistema ezartzea izan da. Hala, abonua izateak hainbat aukera emango ditu, besteak beste, gimnasioa urte osoan erabiltzeko aukera edo Arminzako eta Urizarko frontoiak eta Andrakako padel pista baldintza hobean erreserbatzeko aukera. Gainera, abonua Lemoiz Mugiment Kirol Txartelaren sarean sartzea aurreikusten da laster, eta horrek sareko herrien instalazioak erabiltzeko aukera emango die herritarrei. Abonua bi mota daude: norbanakoena edo familiarra. Azken hori aukerarik merkeena da senide batez edo gehiagorez bizi diren pertsonentzat. Gimnasioa erabiltzeko derrigorrezkoa izango da abonua izatea. Hala ere, pertsona bat abonatu daiteke soilik frontoiak edo padel pista baldintza hobean erreserbatzeko. Horien ordainketak modu telematikoa egin ahal izango dira aplikazioa martxan jartzen denean. Abonua izateko 16 urte beteta izan behar dira eta beharrezkoa da Lemoizen erroldatuta egotea, bertako etxe baten jabea izatea edo bertako etxe batean alokairuan bizitzea. Eskaerak udaletxean edota kultur etxean egin daitezke. ◀

Gorliz Barrenetxea proiektua

Parke-eolikoaren kontrako alegazioak aurkeztuko ditu Udalak

Euskadiko Aldizkari Ofizialak 2023ko abenduan jakinarazi zuenez, hainbat aerosorgailu eraikitze baimena eskatuko dute Gorliz eta Bakio arteko lur-zerrendan; proiektu horrek Lemoiz, Maruri-Jatabe eta Mungia udalerriei ere eragingo lieke. Herritarrak jakinaren gainean egon daitezten, Gorlizko Udalak daborduko argitaratu du Gorliz eta Lemoiz udalerrietan kokatuko litzatekeen Barrenetxea Parke Eolikorako (BPE) alde aurreko administrazio-baimena eskatzeko izapide-prozesua zehazten duen informazio-dokumentua. Hala, udal-arduradunek jakinarazi dute Udala ez dagoela ados proiektu horregaz eta horren kontrako alegazioak aurkezteko asmoa duela. ◀

Sopela UK FOTO argazkigintza aldizkaria

«Argi genuen UK FOTO aldizkaria bi hizkuntzatan kaleratu nahi genuela»

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

Argazkilaritzari buruzko doako aldizkari digitala jaio da gurean: UK FOTO. Uribe Kostako 55 argazkizale biltzen dituen Sopelako UK Foto elkarteak sortu du proiektua, eta horren xede nagusia da argazkigintza gure eskualdean zabaltzea. Hala, aldizkariaren koordinatzaile eta elkarteko kide Patxi Perezegaz elkartu gara. Argazkilari amorratua da, paisaietako, kostaldeko eta gaueko argazkigintzan espezializatua.

Nolako izan da lehen zenbaki hau sortzeko prozesua? Hitz batean laburbiltzearen: aberasgarria. *Symart Magazine* argazki-aldizkari-ko erredaktorea naiz eta, beraz, aurretiazko esperientzia handia nuen; ez nuen zalantzarik ondo aterako zela. Baina UK FOTO aldizkari-ko kideak nola murgildu diren ikustea eta aldizkariaren atalak nola egokitu ditugun bizita, oso esperientzia aberasgarria izan da.

Zenbat kidek parte hartu duzue aldizkariaren sorkuntzan? Fisikoki zortzi kidek parte hartu dugu, baina beste kideren baten babesa izan dugu iradokizunak eta ideiak emanez. Baina ziur nago izotzaldia urtu ondoren UK Fotoko bazkide gehiago batuko zaizkigula aldizkaria egiteko.

Zer izan da zailena? Niretzat zailena beti da ekarpenik egin ezin ditudan zereginak. Kasu honetan, aldizkari-ko zailena maketazioa eta itzulpena izan dira. Maketazioa UK Fotoko kidea den Begoren esku utzi genuen. Emaitzari erreparatu, primeran egin du, eta, gainera, proposatutako epeen barruan.

Laguntzarik izan duzue? Bai. Kontziente gara euskarak duen garrantziaz eta kolektibo asko gure egunerokotasunean presente egon dadin egiten ari diren ahaleginaz, horregatik, argi genuen UK FOTO aldizkaria bi hizkuntzatan kaleratu nahi genuela. Aitzitik, taldeko inork ez zuen euskara hain ondo menperatzen itzulpena ganoraz egiteko, Naiara izan ezik, baina berak ez zuen horretarako denbora nahikorik. Hori dela eta, Uribe Kostako Mankomunitateko itzulpen-zerbitzuek laguntza eman digute zeregin horretarako.



UK FOTO aldizkari-ko kideak. © UK FOTO

Euskaraz ere «Kontziente gara euskarak duen garrantziaz eta kolektibo asko gure egunerokotasunean presente egon dadin egiten ari diren ahaleginaz, horregatik, argi genuen UK FOTO aldizkaria bi hizkuntzatan kaleratu nahi genuela»

Online aldizkari bat da, non ikus dezakegu?

Gure elkarteko webgunean ikus eta deskarga dezakezue: www.ukfotoelkartea.org; paperean egiteari buruzko ideia ere bileretan aipatu dugu, baina oraingoz arreta jarri nahi dugu hurrengo zenbakiak aurrera ateratzen eta xehetasunak leuntzen. Behin hori guztia menderatuta, zergatik ez ausartu paperean egiteko erronkagaz?

Ezustekorik duzue prest hurrengo zenbakirako?

Ez, printzipioz ez. Asmoa da lan-ildo honetan jarraitzea, UK FOTO aldizkariaren orrietan agertzen den idiosinkrasia sendotu nahi dugulako. Hala ere, zenbait aletan gure irakurleak harritzea espero dugu.

Nolako izaten ari da harrera?

Bada, bi bertsioen artean (gaztelaniaz eta euskaraz) 1.200 ikustaldi baino gehiago ditugu dagoneko Calameon. Gainera, benetan harritu gaituzten datuak PDF bidezko deskargak izan dira: ez genituen hainbeste espero, batez ere, hain denbora laburrean eta Gabonak tartean zirela. Beraz, oso pozik gaude. Gainera, zenbait pertsonak interesa erakutsi dute beren etxeak aldizkarian ageri diren argazkiakaz apaintzeko, eta horrek asko motibatzen gaitu hurrengo zenbakira begira. ◀

Uribe Kosta Manu Soto, PiEko zuzendariondokoa

Plastikoaren neurrigabeko erabilera, jomugan

Galiziako kostaldea zuritu duten plastikozko pinportak daude egunotan denon ahotan, baina hori hondamendi ekologiko baten izebergaren punta besterik ez da.

Hasieran piztutako alarmaren ostean, Portugalgo kostaldetik hur merkantzia-ontzi batek galdutako kargan zeuden plastikozko pinportak ez dira masiboki heldu euskal kostaldera, eta adituek ez dute aurreikusten halakorik gertatzea, Galizian eta Asturiasen ez bezala. Hala ere, plastikoaren arazoa ez da nolanhikoa, eta, Greenpeace talde ekologistak ohartarazi duenez, «hau itsasoetako plastikoaren arazoaren izebergaren punta besterik ez da».

Manu Soto biologoa eta Plentziako Itsas Estazioko zuzendariondokoa da, eta azpimarratu du azken asteotako albisteak larriak izan arren, hamarkadak daramatzagula horrelako pinportak eta beste hainbat plastiko gure hondartzetan jasotzen, «eta hau ere gure kostaldeko hondartza guztietara helduko da, neurri txikian bada ere». Sotok azpimarratu du mikroplastikoak aspalditik daudela gure haretzetan eta horiek erraz ikus daitezkeela. «Orain, istripuaren kontura ematen du denok zoratu egin garela, 26 tona dira, baina pentsa, Prestigen kasuan 70.000 tona fuel izan ziren, beste dimentsio batez ari gara. Hartara, ez dut uste pinportak modu esanguratsuan nabaritutako ditugunik», adierazi du zientzialariak.

Dena dela, ohartarazi du plastikoaren gehiegizko eta zentzugabeko erabileran dela benetako arazoa: «Plastikoa neurritz kanpo kontsumitzen dugu eta hori da benetako arazoa. Zergatik garraiatu behar da plastikoa itsasontzi batean herrialde batetik bestera? Ezin da gertuago ekoiztu? Azkenean, hori gure errua ere bada, denok gara horren erantzule, eta honelako istripuek horretaz kontzientziatu behar gaituzte, gure esku baitago hori murriztea».

PLASTIKOA ANIMALIETAN. Sotok lerratzen dituen proiektuen artean, urte bi daramatza plastikoen aztarnak batzen euskal kos-



Pinporta horiek produktu plastikoak fabrikatzeko erabiltzen den lehengaia dira. IREKIA



«Hamarkadak daramatzagu horrelako pinportak eta plastikoak gure hondartzetan jasotzen, eta hau ere gure kostaldera helduko da»

«Denok gara horren erantzule, eta honelako istripuek horretaz kontzientziatu behar gaituzte, gure esku baitago hori murriztea»

MANU SOTO
BIOLOGOA ETA PLENTZIAKO ITSAS
ESTAZIOKO ZUZENDARIONDOKOA

taldean, tartean, Urdaibain: «Hainbat lagin hartu ditugu, eta ia-ia muskuilu eta izkira guztien organoetan mikroplastikoak aurkitu ditugu». Dioenez, ikerketaren aurretiazko emaitzak dira horiek, eta azterketa gehiago egin behar dituzte behin betiko ondorioak ateratzeko, plastikoak ez diren beste hainbat material ere aurkitu baitituzte.

Gaineratu du pinportakaz eta, oro har, itsasoan dagoen plastikoaren arazoetako bat dela arrainek eta hegaztiekin jatekoagaz nahastu dezaketela. Horiek jatean, digeritu ezin dituztenez, sabela bete egiten zaie, tapoi moduko bat sortu eta gosez hiltzen dira.

Plastiko horiek bektore gisa ere funtzionatzen dute eta, uretan dauden bitartean, geruza organiko bat sortzen da beraien inguruan, eta horri uretan dauden bakterioak atxikitzen zaizkio. «Bakterio horiek animalientzako edo guretzako arriskutsuak izan daitezke. Gainera, plastiko horiek metal astunak, pestizidak edota hidrokarburoak izan ditzakete atxikita edo beren osagaien artean».

Era berean, mikroplastiko horiek degradatzen doazen heinean nanoplastikoetan zatitzen dira eta muskuiluek ere irensten dituzte ura iragazten dutenean, beraz, ingurumenari kalte egiteaz gain, gizakioi ere eragiten digu zuzenean. ◀

Zenbateko soldata behar

Gaur egun, pertsona askori zail –edo ezinezko– egiten zaio bakarrik etxebizitza bat alokatzeko gastu bati aurre egitea eta, halakoetan, partekatu behar izaten du etxea. Zelakoa da logela bat alokatzeko eskaintza Uribe Kostan? Aukera bat izaten jarraitzen du? Aukera hobea da etxebizitza osoa alokatzea baino?

Euskal Autonomia Erkideko etxebizitzaren alokairuari eta tenkatutako eremu buruzko azterketa argitaratu zuen joan den abenduan Etxebizitzaren Euskal Behatokiak eta, emaitzen arabera, Berangon eta Urdulizen udalerrri osoak definituko lirarteke gune tenkatu gisa Uribe Kostan; Erandio eta Leioa, aldiz, partzialki. Ikerketaren arabera, Urdulizen, familia-unitate bakoitzak 890,9 euro bideratzen ditu orokorrean alokairura; Berangon, aldiz, 827,4 euro. Eskualdean, median, 793,8 euro inbertitzen dira hilez hil ohiko etxebizitza alokatzeko.

Gaur egungo soldatei erreparatuta, pertsona askori zail –edo ezinezko– egiten zaio bakarrik halako gastu bati aurre egitea, eta, halakoetan, bikotekide, ezagun, senide edo ezezagunakaz partekatu behar izaten ditu gastuok. Etxebizitza partekatuetako logelak etxebizitza oso bat eskuratzeko diru-sarrera nahikorik ez dutenen aukera gisa taxutu da azken hamarkadotan. Hala ere, oraindino ere aukera bat izaten jarraitzen du? Prezioak eskuragarriak al dira? Zer-nolako eskaintza dago logelak partekatzeko gurean?

Momentuz ez dago alokairuko logelen datu ofizialik Euskal Herrian, ezta prezioaren bila-kaerari buruzko zifrarik ere. Hala ere, 2023ko azaro-abenduan Idealista Espainiako Estatu-ko higiezinaren atari handienean argitaratutako eskaintzetatik abiatuta egindako azterketaren arabera, 50 logela zeuden maizter bila Uribe Kostan. Horietatik guztietatik, % 38k 400 euro baino gehiago balio zuten hilean; merkeena 290 eurokoa zen, Leioan, eta garestiena 500 eurokoa, Leioan ere. Iragarki guztietatik, % 80 hiru logelatik gorako etxebizitzetako eskaintzei zegozkienak ziren.

Ikerketa egindako garai horretan, logela garestienak zituen udalerrria Leioa zen, 500 euroan; jarraian Sopela (480 euro) eta Getxo (470 euro). Merkeena, berriz, Leioa ere, lau logeladun etxebizitza batean 290 euroko bat es-



«Asko kostatu zitzaidan alokairu bat topatzea, txikia da eskaintza, eta gehiago kostatzen zaigu epe luzearako nahi dugunoi»

CAMILO SOTELO ALONSO
LEIOA



«Kontrolatu beharko litzateke nor bizi den etxebizitza bakoitzean eta zein den errealitatea laguntzak emateko»

MARIO VILLERAS
AREETA



Uribe Kostan, etxebizitza

aintzen baitzen; ondoren, Getxo eta Urduliz kokatzen ziren, 300 euroan alokatzen ziren hiru logeladun etxebizitzetan logela bana eskaintzen baitzen atari digital horretan.


Gurean, gutxieneko soldata hilabetean 1.260 eurokoa dela –12 hilabetean banatuta– eta adituek ohiko etxebizitzaren gastua % 30-35 artekoa izatea gomendatzen dutela kontuan hartuta, kopuru horren bueltan dabilen uribekostarrak 378-441 euro inguru bideratu ahal izango luke pisu edo logela baten alokairurako. Bada, aurkitutako logela-eskaintzaren

da alokairuan bizitzeko?



Logela bat alokatzeko eskaintza, portzentajeen

Idealistan iragarritako gelen zenbatekoa, eskaintako prezioaren arabera



Datuak: Idealista, 2023ko azaroa-abendua



«Lagunengatik dakit alokairu oso garestiak daudela Uribe Kostan. Hasieran, euren artean pisua partekatzen zuten»

ANE GALDOS GALLASTEGI
ALGORTA



«Alokairuan nago eta pisua partekatzen dut ezin dudalako bakarrik etxebizitza bat ordaindu»

ALBERTO MARTINEZ LOPEZ
BILBO

txon, Udalak ekainaren 30era arte ireki du etxebizitza alokatzeko eta 18-35 urte arteko gazteak emantzipatzeko laguntzak. Erakunde horrek, besteak beste, urtez urte moldatu ditu laguntzok, ahalik eta gazte gehienengana ailegatzeko irizpideak malgutuz.

Gizon-emakume helduago edo nagusiagoen artean, berriz, egoera are zaurgarriagoa izan ohi da, adinagatik, soldata baxua dutenek laguntza gutxiago –edo batere– jasotzeko aukera izaten baitute kasu askotan, ez behintzat espresuki emantzipaziorako bideratutakoak.

ALOKAIRU OSOA, AUKERAN. Egoera bertsua da etxebizitza osoa alokatu gura izatekotan? Higiezin agentzia bereko datuak aztertuta, 2024ko urtarrilean, 133 iragarki daude Uribe Kostan, erdia baino gehiago Getxon (99). Garestiena 6.900 euroan dago, Getxon, eta merkeenak 700 euroko logela bakardun etxebizitzak dira, Gorkizena eta Barrikan kokatuta daudenak, hain zuzen. Bada, argi ikus daiteke lehenengo aukera kenduta, merkeenari aurre egiteko bakarrik, interesdunak 2.300 eurotik gorako soldata izan beharko lukeela, edo, berriro ere, bikotekide, lagun, ezagun edo ezezagunen bategaz etxebizitza osoa alokatu eta denen artean zenbatekoa modu proportzionalan ordaindu, edo etxebizitzaren logeletakoren bat hirugarren bati –edo gehiagori– berrakuratu. ◀

erdia inguru eskuratu ahal izango luke soilik.

Egoera zaurgarria da, beraz, eskualdeko gazteen artean, horiek izaten baitira soldata gutxiena jasotzen dutenak. Erakundeek emandako datuen arabera, neska-mutilek 29 urtera arte itxaron behar izaten dute gurasoen etxetik alde egin ahal izateko eta, hori dela eta, emantzipazioan laguntzeko, tokiko udalek, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak askotariko subentzioak jarri ditu martxan urteotan, baina ezarritako baldintzak ez dira beti betetzeko errazak izaten. Berbarako, Ge-

oso bat alokatzeko prezio merkeena 700 eurokoa da gaur egun.



Ane Elordi Korrikako koordinatzaile nagusia

«Korrika aldarrikapenerako ekimena da»

Martxoaren 14an abiatuko da Korrika, Irundik, eta martxoaren 24an iritsiko da Baionara. Hamaika egun euskararen alde korrika, eta, poliki-poliki, ari dira aurtengo edizioaren xehetasunak ezagutzen. Urtarrilaren 11n aurkeztu zuten 23. edizioaren ibilbidea; hori eta aurtengo edizioari buruz gehiago jakiteko, Korrikaren koordinatzaile Ane Elordi elkarrizketatu du Tokikomek.

TESTUAK ETA ARGAZKIAK: TOKIKOM ►

Duela urtebete pasatxotik zaitugu Korrikaren koordinatzaile, 2013a ezker kargu horretan egondako Asier Amondori lekukoa hartuta; zer moduz? Ondo. Korrika arduraduna izatea izugarritzko ardura da. Nik beti esaten dut bakarrik ez dela egiten lan hau. Talde handi baten laguntza jasotzen dut eta egunerokotasunean taldean aritzen gara. Apurka-apurka, bagoaz edizioa prestatzen.

Korrika... nola definituko zenuke? Korrika zerbait bada, nire ustez, emozio-jai bat da, baina ezin dugu ahaztu, sarri, jai horretan gelditzen garela eta oso presente eduki behar dugula aldarrikapenerako ekimena dela. Euskararen inguruan antolatzen den Euskal Herriko ekimenik erraldoiena da. Gizarte osoa mugiarazten du eta muga bakarria hizkuntza bera da. Orduan, oso ekimen potentea da.

Zu zeu egitasmoaren gidari zarela egingo den lehen Korrika izango da; 2024koan zertan igarriko da gidaritza aldaketa hori? Bakoitzak bere aletxoak jartzen dio. Lehen esan dudan moduan, nik taldeari garrantzi handia ematen diot. Azkenengo ikasturtean askotariko hausnarketak eraman ditugu aurrera. Euskarara da guretzat erdigunea, baina badakigu Harro herri eta euskararen Harro herri hori sortzeko beste arlo batzuetan ere eragina eduki behar dugula. Esaterako, gizarte erantzuz-



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

Martxoaren 21ean, Uribe Kostara

Lemoizko Andraka auzotik sartuko da 2024ko Korrika Uribe Kostara, martxoaren 21ean, goizeko 05:24ak aldera. Hortik aurrera, Gorrizako bidea hartuko du eta, eskualdea alderik alde zeharkatu ostean, Erandiogoikotik utziko gaitu, dena ondo bidean, 09:51ak pasata.

kizuna landu izan dugu, aztarna ekologikoa ere bai... Korrikak arropak ateratzen ditu, eta arropa horiek nondik datozen azterketa egin dugu; saiatu gara hurbiltzen materialetan ere berrikuntzak sartzen. Ez da erraza. Ezin dugu ahaztu Korrikak bi helburu dituela: bata, euskararen kontzientziazioan suspertzea; eta bestea, AEKrentzat baliabide ekonomikoak batzea. Orduan, oreka hori mantenduta pauso txikiak egiten aurrera goaz. Euskarri dago-kienez, Korrika hurbildu ahala Euskal Herri osoa apaintzeko ardura hartzen dugu AEK-ko kideok, baina apainketa hori, sarri, plastikoz janztea dela iruditzen izan zaigu. Orduan, horri aurre egiteko, materialak eta beste modu batzuk apainketa batzuk sustatzen gabilta.

Horiek guztiak eta aurreko edizioak izandako dimentsioa kontuan izanik, ez duzue erronka makala aurretik, ezta? Azkenengo edizioan, batez ere, kilometroz kilometro jendetza egon zen. Harrera oso beroa izan zen, baina Donostiako bukaera izugarria izan zen. Orduan, orain arte, azaroaren 16an aurkeztu genuenetik harrera ere oso ona izan da eta aurrekusten dugu bide beretik joango dela 23. edizioa.

Eta nola hartu tamaina? Nola egin patxadazko antolaketa bat? Nola ari zarete? Ez da erraza, baina bagabiltza. Eguneroko lana

da. Batzuek duela gutxi Gabonetako oporrak izango zituzten. Gu, beste martxa baten, baina lanean ibili gara, eta apurka-apurka. Bada gustura egiten den lan bat, eta, behin Korrika amaituta, orduan hartuko dugu atseden.

Harro herri lelopean egingo da; azaldu ieza-guzu hitz pare horren ideia. Batetik, azpimarratu nahi izan dugu badela momentua euskaraz harro bizi nahi dugula eta bizi garela adierazteko. Harro, baina ez konforme. Aldi berean, lehen esan dut Korrika aldarrikapenerako egitasmoa dela, eta ezin dugu ahaztu azaroaren 4an Kontseiluak deitutako manifestaldi hartan bildutako jende guztia. Hori da, gure ustez, badagoela gogo bat euskaraz Harro herri sortzeko. Orduan, gutako bakoitza nahiz eta ezberdina izan, bakoitzak bere iritzi, pentsaera eta jokaerak izango ditu, baina hizkuntza berak batuko gaitu. Euskaraz batu-ta sortuko dugu komunitatea Harro herri.

Garrantzitsua izaten da kantua, ekimenaren bidelagun izaten delako eta jende askorengana heltzen delako. Aurtengoa Maite Arroitauregi Mursego musikariak ondu du; eta bideoklipa, berriz, Amaia Badiolak. Korrika batzordean aukeratu genuen Mursego izatea kantaren egilea, eta jakin genuen zerbait berezia izango zela. Emaizta ikustearekin batera, pozarren. Uste dugu zenbat eta gehiago entzun orduan eta gehiago gustatuko den kantua dela, eta Korrika egiteko primerakoa.

23. edizioa izango da aurtengoa; martxoaren 14tik 24ra egingo da, Irundik Baionara. Zergatik aukeratu dituzue toki horiek ekimena abiatu eta helmugaratzeko? Guk AEK barruan irizpide batzuk ditugu. Azkenengoa Donostian amaitu zenez, herrialde horretako herri batetik abiatzea da irizpideetako bat. Gipuzkoak Irun proposatu zuen. Zergatik Irun? Korrika jarraitzaileak bagara, azkenengo hasierak izan dira herri txiki, arnagune eta halakoetan. Baditugu Amurrio, Otxandio, Urepel... Bat-batean Irun. Irun bada Gipuzkoako bigarren herririk populatuena, eta, aldi berean, Gipuzkoak badauka ezaugarritzat arnagune izatea Euskal Herri mailan, baina arnagune horren barruan dena ez da urre.

Horren adierazle izan daiteke Irun. Irun-go kideek proposatu zuten bertan hastea, eta egokia iruditu zitzaigun. Batetik, badelako modu bat Korrika hasiera bertako euskalgintza indartzeko. Guk azaroaren 16an nazio mailako aurkezpena egin genuen. Aste hartako zapatuan Irungo euskalgintzak deialdia egin zuen eta jendearen harrera eta eran-



Mursego egindako kantua «Jakin genuen zerbait berezia izango zela. Uste dugu zenbat eta gehiago entzun orduan eta gehiago gustatuko den kantua dela, eta Korrika egiteko primerakoa»

tzuna oso ona izan zen. Ordotik, badabilta lehen eguneko egitaraua antolatzen herri mailako eragileekin, eta ematen du euskalgintza berpizten ari dela. Orduan, oso egokia iruditzen zaigu.

Helmuga, Baiona. Jakingo duzuen moduan, hurrenkeran tartekatzen dira hiriburuak, eta aurtengoa Baionari tokatu zaio.

Urtarrilaren 11n ezagutu genuen aurtengo ibilbidea. Herri guztietatik pasatzea ez da posible, baina, kasu horretan ere, zein irizpide hartzen dituzue kontuan Korrikaren mapa osatzeko? Korrika aurkezten den bakoitzean, jendea ibilbidearen zain egoten da. Guk nazio mailako irizpideak ditugu eta saiatzen gara ahalik eta herri gehienetatik igarotzen; gutxi gorabehera, 210 herri igaroko ditu Korrikak. Badira irizpide batzuk bai ala bai bete beharrekoak edizio oro. Hori bada



23. edizioa izango da aurtengoa, eta Harro Herri izango du lelo gisa.

herrialde guztiak zapaltzea eta AEKren euskaltea dagoen herrietatik pasatzea. Horrez gain, saiatzen gara, gutxienez, herrialde bakoitzeko eskualde guztiei keinutxo egiten. Batzuetan, zeharkatu; beste batzuetan, ukitutxo bat. Badaude hainbat toki iristeko ez direnak hain errazak; bertaraino joan eta buelta egin behar dena. Eta zailtasuna badauka ibilbidea osatzeak.

Aurtengoari dagokionez, zer nabarmenduko zenuke? Aurtengoa Irundik abiatuko da eta Hondarribiraino joango da. Adibidez, hor joan-etorria, ez dago aukera askorik. Eta gero, Ipar Euskal Herrira sartuko da. Zeharkatuko du Ipar Euskal Herri osoa eta Zuberoatik Nafarroara joango da. Azken edizioetako joera bada Erribera inguruan asteburua egitea. Gainera, Euskal Herriko talde, elkarte eta lagun asko batzen dira inguru horretan Korrikaz gozatzeko. Badelako beste modu bat

210 udalerrri zeharkatuko ditu «Guk nazio mailako irizpideak ditugu eta saiatzen gara ahalik eta herri gehienetatik igarotzen. Irizpideen artean dago, gutxienez, AEKren euskaltea dagoen herrietatik pasatzea»

norberaren herrian bai baina beste leku batzuetara hurbiltzea. Gero, pixkanaka gorantz joango da: Araba, Gipuzkoa, Bizkaia... Nabarmentzekoa, adibidez: aspaldi, Durangaldean Mañaritik ez da igaro, eta gero, Urkiolan gora igo beharko da mendatea. Elantxobe ere bai. Orduan, horrelako keinutxoak egin dira.

Eskuz esku eta kilometroz kilometro lekuko ematen dute korrikalariak eta euskaldun ezagun baten idatzitako mezua gordetzen da barruan. Hori sorpresa izango da, noski. Amaiera ekitaldian zabalduko da bertan idatzitakoa lau haizeetara, baina zer da mezu horren bitartez bilatu nahi izaten dena? Lekukoak barruan ematen duen mezua berezia da. Gainera, sortzen da halako emozio-intriga hori behin lekuko barruan sartzen denean ea nork idatzi duen. Kinielak egiten dira lagunarteetan. Guk bilatzen dugu Korrika edizio osoa biribiltzea. Sarri, jendartean esaten dugu martxoaren 14tik 24ra dela Korrika, baina gu azaroaren 16an Korrika aurkeztetik geroztik, bitartean eskaintza kulturala itzela izanda, Korrika beka daukagu, kantua ateratzen da, dokumentala aurkeztuko da... Hori guztia ere bada Korrika guretzat. Guk sei hilabeteko ziklo moduan bizi dugu, eta hori guztia biribiltzeko pastelaren goiko txokolatetxoa dela esan daiteke. Eta edizioak berak duen mezua eta leloa borobiltzeko pertsona batek idatzitako mezua da.

Parte hartzeko moduei dagokionez, nola parte har daiteke Korrikan? Eskaintza kulturala izugarria da. Kilometroak eskuratu eta korrika egitea izan daiteke modu bat, espalotik txalo egin eta animatzea... Gure webgunean horiek guztiak bilduta daude. Arropak ere atera dira, ekarpen ekonomikoa egiteko moduak asko dira: Korrika laguntzaile bihurtu, herriz herri antolatzen diren batzordeetan antolaketa lanetan aritzeko. Sarri AEK-ko kideon esku geratzen den lana da, baina Korrika batzordeak ia herri guztietan sortzen dira. Aukerak, milaka.

Bi urtean behin, hamaika egun eta hamar gau lasterka. Eta gero zer? Zertarako baliatu beharko litzateke Korrikak bistaratutako indarra? Sarri, kezka hori guk ere izaten dugu. Horretan badugu lana eta erronka. Lehen esan dudana bezala, azaroaren 4an egon zen indar agerraldi bat, herriak erantzun zuen. Orain, Korrika dator, eta espero dugu herriak erantzutea. Gero etorriko da Euskaraldia. Orduan, guztion artean asmatu beharko dugu zikloa aritzeko eta indar hori metatu eta erabiltzeko modua. ◀

Urtarril-otsaila

Barrika

Urtarrilak 19, barikua

Ludoteka: Areazko erlojua

18:00 | Ander Deunan

5-12 urteko umeentzat. Izen-ematea telefonoz edo emailz: 946 775 163 - liburutegia@barrika.eus.

Urtarrilak 27, zapatua

Sukaldaritza: Zero waste tailerra

11:00 | Liburutegian

8 urtetik aurrera. Izen-ematea, liburutegian.

Urtarrilak 31, eguaztena

Ipuinaren ordua: Nola dastatu ilargia

18:00 | Liburutegian

4-7 urte. Izen-ematea liburutegian.

Berango

Urtarrilak 21, domeka

Umeentzako ikuskizuna:

Tomaxen abenturak: Azken Festa

18:00 | Berango Antzokian

Tomax eta Muxik agur esango dute aurten, beraz, euren ibilaldiko unerik onenak bildu dituzte.

Urtarrilak 27, zapatua

Antzerkia: Juntos y revueltos

19:30 | Berango Antzokian

Gurutze Beitiak eta Gorka Aginagaldek umorezko obra berria dakarte.

Urtarrilak 28, domeka

Umeentzako ikuskizuna: Xaibor

18:00 | Berango Antzokia

Dantzaren bidez, Disney mundua dakar Xaiborrek.

Erandio

Urtarrilak 21, domeka

Antzerkia: Kortxoaren dilema

19:00 | Merkatu Zaharrean

Endredoizko thriller politikoa bi aktoreentzat: Patxo Telleria eta Mikel Martinez.

Urtarrilak 26, barikua

Kontzertu txiki

18:30 | Josu Murueta kultur etxean

3 eta 12 urte bitarteko umei bereziki zuzendutako kontzertua.

Otsailaren 2an eta 3an

Gure! jaialdia

Altzagan

Tartangako ikasleek Gure! jaialdiaren bigarren edizioa antolatuko dute: kontzertuak, azoka, antzerkiak, jolasak...

Getxo

Urtarrilak 20, zapatua

ALBEti bazkaria

14:30 | Azebarrin

Berto-urtea ganoraz hasteko bazkaria. Izen-ematea: 605 704 385 edo albegetxo@gmail.com.

Urtarrilak 21, domeka

Antzerkia: Gure kanoa

18:00 | Muxikebarrin

Senegaleko arrantzale familia batean jaiotako Abba haur ausart zein xarmagarriaren istorioa.

Urtarrilak 27, zapatua

Antzerkia: Anbotoko Mari

18:00 | Muxikebarrin

Multimedia antzezlan honek bideo-animazioa, interpretazioa eta musika uztartzen ditu.

Urtarrilak 27, zapatua

Kontzertua: Eneko Aristondo

19:30 | Andres Isasi musika eskolan

Hainbat sari jaso dituen gitarra-jole bilbotarraren kontzertua.

Urtarrilak 29, astelehena

Hazibideak: Pornografia eta informazio iturrien garrantzia

18:30 | Zabala eskolan

Sendik eta Egizuk antolatuko Emoki elkartearen berbaldia gurasoentzat.

Otsailak 8, eguena

Zientzian Txonbo!

Villamonte kultur etxean

2024ko Ibilaldiko solasaldiak: Ibone Ametzaga (ekologia), Jon Azkargorta (fisika), Jone Uria (matematika) eta Jone Mitxelena (biomedikuntza).

Otsailak 9, barikua

Antzerkia: Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi

19:30 | Muxikebarrin

Donostia Antzerkia Sariaren obra irabazlea.

Gorliz

Urtarrilak 31, eguaztena

Irakurketa taldea: Frankenstein

19:00 | Sertutxenan

Iñigo Errastik euskaratutako liburuaren analisia egingo dute.

Leioa

Urtarrilak 21, domeka

Umeentzako antzerkia: Zimurren artean kontu kantari

18:00 | Kultur Leioan

Belaunaldi zaharrei omenaldia.

Urtarrilak 26, barikua

Kontzertua: Gorbeia

20:30 | Kultur Leioan

Basoetan sortu ziren antzinako kondairen irakurketan eta interpretazioa, besteak beste, Gontzal Mendibil eta Iñaki Garcariaren eskutik.

Otsailak 2, barikua

Antzerkia: Del color de la leche

20:30 | Kultur Leioan

XIX. mendeko pertsonaia bereziz betetako mikrokosmos eder zein tragikoa.

Plentzia

Urtarrilak 25, eguena

Itzal-ipuina: Enperadorearen kondaira

18:30 | Goñi Portalen

Umeentzako txotxongiloen ikuskizuna.

Urtarrilak 26, eguena

Ukelele tailerra

18:30 | Goñi Portalen

Plaza mugatuak, izena eman behar da, Goñi Portalen edo 946 775 541 telefonoan.

Urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra

Erakusketa: Si la amas...

Goñi Portalen

Edurne Cacho ilustratzailearen ilustrazioak.

Sopela

Urtarrilak 22 eta 23

Jaiotzaren inguruko doluaren inguruko jardunaldiak

Sopela Zurekin elkarteak doluaren inguruko hainbat jardura egingo ditu: erakusketak, tailerrak, liburu-aurkezpenak...

Urtarrilak 26, barikua

Antzerkia: Hasta que la muerte nos separe

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Helduentzako antzerkia.

Urduliz

Urtarrilak 26, barikua

Begirada berri bat: As bestas

18:30 | Kultur etxean

Helduentzako zinema dohainik.

Urtarrilak 27, zapatua

Zinema: Patrick

18:00 | Kultur etxean

Umeentzako zinema euskaraz.

Lehen/Orain **Plentziako udaletxe zaharra, 1919; orain, museoa**



ITURRIA: INDALECIO OJANGUREN ARTXIBOA

Uribitakora



ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

TESTUA
Galder Bilbao
Martinez Txapi

DOINUA
Mutil koxkor bat
itsu aurreko

ARGAZKIA
Iker Torre
Navarro

Lau buru, hainbat helburu.

*Urte barria hasi egin da
jaso indar ta animo,
uda parte ailegatu arte
segi tinko eta irmo.
Orduan eroso ibiltzeko
gastatu hainbat xentimo,
kontzertu eta txosnetarako
emongo dizu erritmo;
Lauburua bilakatu zaigu
jaietako sinonimo.*

*Txakoliña, sagardo ta ardoa
izatekotan egarri,
Txillida, Oteiza ta jasotzeko
arte diren hainbat harri.
Txalaparta, soinua, alboka
nork ez du dantzatu "Sarri",
mendi, ibai eta itsasoa
mendeetako euskarri;
gure Euskal Herriak baditu
ikur eta ezaugarri.*

*Lurra, sua, haizea, ura
zuen lauburua atara,
kultura, hizkuntza, herria, bihotza
batera igotzera malda,
Euskaraldia edo Korrika
ta gustuko ez dugun salda.
Iraultza ez dadila gelditu
kamiseta batean hara;
Postureo gutxiago eta
Euskara jalgi plazara!*

Nora Andreu Serrano Psikologoa

«Denok gara prebentzio-eragileak autolesioetan»

Gutxitan berbaz adierazten den afera izan arren, autolesioaren praktika gure gizartean dirauen errealitatea da. Horregatik, Urdulizko psikologo Nora Andreu Serranogaz elkartu gara, autolesioen konplexutasunari buruz ikasteko eta mitoak gezurtatzeko asmoz.

NAHIA MARTINEZ GONDRA

Zer arrisku-faktorek eragin ditzakete autolesioak gazteengan? Autolesioak faktore anitzekoak dira eta ez dago inoiz kausa bakar bat. Emozionalki autoerregulatzeko izaten dira, norbaitengan eragina izateko edo norbera zigortzeko gisa. Suizidioaren aurka estrategia bat ere izan daiteke. Hala ere, badaude arrisku-faktore nagusi batzuk. Emakume izatearen faktoreaz asko hitz egiten da, beren burua zauritzen duten pertsona asko emakumeak izaten baitira. Ez dira bakarrak, baina izaten dira. 10-12 urte bitartean has ten dira. Era berean, ezaugarri psikopatologikoak dituzten lagunek autolesioak egin ditzakete, baina horrek ez du esan nahi beren burua zauritzen duten pertsona guztiek buruko nahasmendurik dutenik.

Horrez gain, beste hainbat arrisku-faktore daude: barne-erregulazio eza, autoestimu txikia, gizarte-trebetasunen defizita, bullyinga eta ziberbullyinga, gurasoekiko harreman txarra, gurasoen aldetik gaizki kudeatutako dibortzioa, tratu-txarrak, parekoengatik baztertua sentitzea, autolesionatzen diren lagunak izatea, maitasun-hausturak eta haien sexu-identitatea ez onartzea, besteak beste.

Zeintzuk dira babes-faktoreak? Familia-kohesio handia izatea, adiskidetasun ona, gizarte-trebetasunak, gertatzen zaionari buruz hitz egiteko gaitasuna, baliagarri sentitzea... Babes-faktorarik ez badago, sortu egin behar dira eta, baldin badaude, indartu. Halaber, zirkulu sozial bati buruz hitz egitean, maskotei buruz ere hitz egiten dut. Gazteek askotan txakurrak, katuagaz edota periki-toagaz lasaitzen dira. Azkenean, zerbaiti hel du behar diote.

Autolesioak hautemateko badaude kontuan hartu beharreko alerta-seinalerik? Guraso,

Faktoreak

«Barne-erregulazio eza, autoestimu txikia, gizarte-trebetasunen defizita, bullyinga eta ziberbullyinga, gurasoekiko harreman txarra, gurasoen aldetik gaizki kudeatutako dibortzioa, tratu-txarrak, parekoengatik baztertua sentitzea, autolesionatzen diren lagunak izatea, maitasun-hausturak eta haien sexu-identitatea ez onartzea, besteak beste»

Estigma

«Autolesioak maiz buruko nahasmendu bategaz lotzen dira. Gazteak arraro sentitzen dira egiten dutenean, eta horregatik garrantzitsua da ahotsa ematea, jendeak uler dezan zer gertatzen ari den eta nola lagundu dezakegun. Horregatik dira funtsezkoak ikastetxeetako eta familiarteko hitzaldiak»

irakasle eta lagun gisa, kanpotik identifikatzen ditugun seinaleetan jar dezakegu arreta. Horrek ez du esan nahi alerta-seinale horiek beti agertzen direnik, askotan ezkutatu egiten baitituzte gazteek.

Hurrengoak dira alerta-seinale nagusiak: alde aurretiko suizidiorako saiakera bat izatea; alterazioak aldarrean, betiere nerabezaroi dagozkien aldaketak daudela kontuan hartuta; lesio errepikakorrek, adibidez, beti ubeldurakaz edo zauriakaz agertzea; alkoholen eta drogen abusua; senideen isolamendu afektiboa; lagunaren gabezia; sare sozialetan denbora gehiago pasatzea eta bertan suizidioaren eta autolesioen gaiak asko hitz egitea; sexu-identitatearekiko gatazka; higie-ne pertsonalean zaintza eza; eta baita eskola-porrota ere, batez ere, iraganean ibilbide akademiko on bat izan duten gazteetan.

Laburbilduz, aldaketetan zentratu behar gara. Bat-bateko edozein aldaketak alarma-seinalea eman behar digu.

Gaur egun, tabua izaten jarraitzen dute autolesioek. Nolako eragina du estigmak gazteengan? Bai, betidanik tabua izan denez, autolesioak maiz buruko nahasmendu bategaz lotzen dira. Gazteak arraro sentitzen dira egiten dutenean, eta horregatik garrantzitsua da ahotsa ematea, jendeak uler dezan zer gertatzen ari den eta nola lagundu dezakegun. Horregatik dira funtsezkoak ikastetxeetako eta familiarteko hitzaldiak. Estigma horrek gaixoen min emozionala eta ondoez psikologikoa areagotzen ditu. Tabuak isiltasuna eragiten du, isiltasunak sufrimendua pertsonarengan eta ingurukoengan.

Halaber, erruaren, tristuraren eta beldurraren sententzia areagotzen du senideengan, ez baitakite nola aurre egin egoerari. Horrek guztiak gazteek laguntza eskatzeko

probabilitatea gutxitzen du, ez baitakite zer pentsatuko duten bere ingurukoek. Azkenean, autolesioa ez da irtenbide egokia, baina irtenbidea da, eta gazteek betikotu egiten dute. Orduan, irakatsi behar dena da beste bide batzuk daudela.

Kontuan izan behar da ere autolesioak arrisku-faktorea direla suizidioan. Ez da beti horrela, baina izan daiteke. Gainera, gazteak minera ohitzen dira, eta horrek arindu egiten ditu. Autolesioek droga eta mendekotasun gisa funtzionatzen dute: gazteek jasan ezin duten min emozionala dute; orduan, tentsioa areagotzen da pertsona horiengan, eta emozioak maneiatzeko ezintasuna sentitzen dute. Hala, autolesioak sortzen dira.

Zer egin dezakegu laguntzeko? Jokabide autolesioei buruz ahalik eta gehien ikertu eta ikasi, horiek ulertzeko. Gazte horrek nahi duena da ulertua sentitzea, epaiketarik gabe. Ez da saihestu behar autolesioaren gaia, izan ere, askotan beldurragatik beste aldera begiratzen dugu. Ni neu espezializatzen hasi nintzen tresnarik gabe eta beldurragaz sentitzen nintzelako kontsultan. Hala, elkarrizketa irekia eta argia izan behar dugu gazteakaz. Lehen aldiz berbaz adierazten dutenean, lasaitasun handia sentitzen dute.

Era berean, esaten eta egiten dutenaren inguruko interesa erakutsi behar dugu; bere emozioak baliozkotuko dituen entzute empatikoa ahalbidetu. Ulertzen laguntzeko, argi esan ahal diegu, «nola lagun diezazuket?».

Eta zer ez dugu egin behar? Guraso edo lagun gisa konturatzen garenean gure senitartekoa bere burua zauritzen ari dela, bururatzen zaigun lehen gauza da autolesio hori ekiditen saiatzea egun batetik bestera. Baina ez bada-kigu zein den min hartzeko asmoa, ezin dugu autolesioa debekatu edo kendu. Izan ere, gazte bat suizidioaren asmoa saihesteko bere burua zauritzen ari bada, min hori kudeatzeko duen azken modua kentzen diozu; ondoez hori estutuko diozu. Kontuz ibili behar dugu, eta edozer gauza egin baino lehen sufrimenduen zergatia ezagutu.

Halaber, ezin dugu inoiz konfidentzialtasuna mantenduko dugula zin egin, izan ere, batzuetan, profesionalak behar ditugu, baina horrek ez du esan nahi senide gisa ezin dugunik lagundu. Saihestu «pasatuko zaizu» edo «tontakeriak dira» bezalako esaldiak. Hala, kontuan izan behar dugu autolesioa arazo baten ondorioa dela, ez da arazoa: icebergaren punta da. Gainera, ezin dugu ahaztu gazteari laguntzen ari dion pertsonaren autozainketa bera. Autolesioak barrutik mugitzen



Suizidioaren prebentzioan aditua da Nora Serrano Andreu. AROA SOTELO VELASCO

Mitoak

«Ikusi dugu autolesioak kausa anitzekoak direla, eta, arreta deitzeko egiten badu, aztertu egin beharko litzateke zergatik duen modu hori. Askotan uste da zauria txikia bada ez dela garrantzitsua, baina ez da gutxietsi behar, minera ohitzen direlako. Batez ere, jakin behar dugu zein asmorengatik duten jokabide hori. Beste mito bat da emakumeak bakarrik autolesionatzen direla, eta, nahiz eta gehiengoa izan, gizonak ere badaude»

zaituzten zerbait dira, eta, azkenean, zuk ere laguntza behar duzu.

Zeintzuk dira autolesioetara lotutako mito ezagunenak? Arreta deitzeko egiten duela, esaterako. Ikusi dugu autolesioak kausa anitzekoak direla, eta, arreta deitzeko egiten badu, aztertu egin beharko litzateke zergatik duen modu hori. Askotan uste da zauria txikia bada ez dela garrantzitsua, baina ez da gutxietsi behar, esan dudana bezala minera ohitzen direlako. Batez ere, jakin behar dugu zein asmorengatik duten jokabide hori.

Beste mito bat da emakumeak bakarrik autolesionatzen direla, eta, nahiz eta gehiengoa izan, gizonak ere badaude. Gainera uste da nahi dutenean uzteko aukera dutela, baina autolesioek adikzioek bezala jokatzen dute. Bukatzeko, uste dugu guk ezin dugula lagundu, eta denok lagundu dezakegu: bertan egoten eta gertatzen ari dena ez epaitzen.

Bukatzeko, badago nabarmendu nahiko zenukeen zerbait? Autolesioen arazoa osasun publikoko arazo bat da, baina baita arazo soziala ere. Denok gara prebentzio- eta aldaketa-eragileak suizidioaren eta autolesioen gaian. Denok egin dezakegu zerbait eta denok egon gaitezke. Beharbada, gazte batek ez du egon nahi, baina zu hor zaudela eta edozein unetan gelatik irten eta zerbait esan dezakeela jakitea konfiantza da. Guk, senide eta lagun gisa, jakin behar dugu bertan egoten.

SAN NIKOLAS IKASTOLA

Arenezpi, 15 48991 GETXO • 944 30 54 78 • ikastola@sanikolas.eus • www.sanikolas.eus

Txonbo egingo dute ikastolen alde

Berritzailea, gertukoa, inklusiboa, euskalduna eta kooperatiboa da San Nikolas Ikastola eta, aurten, horren esku dago Ibilaldiaren 46. edizioa antolatzeke ardura.

San Nikolas Ikastolak, euskal kultura eta euskararekiko duen konpromiso sendoa bermatzen jarraitzeko helburuagaz, Ibilaldiaren 46. edizioa antolatzeke ardura hartu du, maiatzaren 26an ospatuko dena. Kalitatezko hezkuntza eskaintzen duen zentro honek eskarmentu handia da jaialdi hori antolatze-lanetan eta, etengabe eguneratutako hezkuntza-sistema pedagogikoaz gain, eskolaz kanpoko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu; haurtzaindegia, jantokia edota Uribe Kosta osora heltzen den garraio-azpiegitura, besteak beste. Guraso-talde baten ekimenez sortutako proiektu honetan, langileak, gurasoak zein ikasleak eguneroko kudeaketan ezinbestekoak dira. Beti ere, euskara-



Laugarren aldia da San Nikolas Ikastolak Ibilaldia antolatzen duena.

Maiatzaren 26an egingo dute 46. Ibilaldia jai.

rekiko konpromisoagaz. Bestalde, langileen etengabeko formakuntzak San Nikolas Ikastolak hezkuntza berrikuntzarekiko duen konpromisoa islatzen du.

BETIKO IKASTOLA

Artatza auzoa, 84. 48940 LEIOA • 944 642 364 • info@betikoikastola.eus • www.betikoikastola.eus

Leioako ikastola herritarra

Leioako Betiko Ikastola guraso kooperatiba eta Euskal Curriculum aoinarri duen Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kidea da. Euskara dute ardatz nagusi.

Betikoren eredu inklusiboak euskara eta euskal kultura ditu ardatz. Euskararen erreferente izan nahi dute, eta horretarako euskaraz bizi eta euskal kulturaren igorle eta bultzatzaile izateko konpromisoa hartua daukate. Ikasleen norberaren garapenerako beharrezkoak diren erabakiak zuzenean familiekin elkarlanean hartzen dituen ikastola da Betiko. Aniztasunari modu inklusiboan erantzuna ematea da bere erronka handienetako bat. Euskal Curriculumean oinarrituz, konpetentziak eta baloreak garatzeko berezko ikasmateriala dauka, HHn KUKU, LH 1-2-3n KIMU eta LH 4tik DBH 4ra EKI proiektuak lantzen dira, haien arteko koherentzia 0-16 tarte osoan zehar bermatuz. Betikon, jantokia ere ere-



Emozioak eta barne sendotasuna asko zaintzen ditu Betiko Ikastolak.

Euskaraz sentitu, pentsatu eta ekin Betiko Ikastolan.

mu hezitzailea da; bertan, jan-ohitura osasungarriak lantzen dituzte. Horrez gain, bertoko, sa-soiko eta maitasunez prestatutako produktuekin egindako menuak eskaintzen dituzte.

Biharko mundua gaur eta hemen

Naturaz inguratuta eta bertako profesionalen lantalde trinko batekin, Uribe Kostako komunitate euskaltzaleak osatzen du Ander Deuna Ikastola.

Ander Deuna Ikastolaren hezkuntza-proiektuaren ardatzak honako zutabe hauetan oinarritzen dira: konfiantzazko hezkuntza eta pedagogia aurrerakoaia, ikastolan eskuz esku parte hartzeko komunitatea, euskara eta euskal kultura erdigunean jartzeko helburua, eskualdearekin eta naturarekin lotura eta Euskal Herriko Ikastolen sarearen parte izatea.

Ander Deunan Ikastolak Haur Hezkuntzatik Batxilergora doan hezkuntza-eskaintza integrala dute, euskaraz, mundura begira eta etengabeko orientazio-prozesu batekin.

Horrez gain, Ikastolaren proiektu pedagogikoan erabat integratuta dauden eta hezkuntza-proiektuaren osagarri diren hainbat zerbi-



Ander Deunan, ikaslea ulertzeko moduan oinarritutako eredu pedagogikoa lantzen dute.

**Ate irekiak
egingo dituzte
urtarrilaren 17,
22 eta 30ean.**

tzu eskaintzen dituzte, hala nola ekoizle eta hornitzaileekin zuzeneko harremana duen sukalde eta jantokia, autobus-zerbitzua, Haur eta Lehen Hezkuntzako familientzako zaintza-zerbitzua eta askotariko eskolaz kanpoko ekintzak.

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA EUSKALTEGI MUNICIPAL DE GETXO

**5 ORDUKO
IKASTARO
TRINKOAK**
CURSOS
INTENSIVOS
DE 5 HORAS

MAILA GUZTIAK
Todos los niveles
A1-A2-B1-B2-C1



IKASTAROA: Otsailaren 19tik ekainaren 28ra arte (415 ordu)
CURSO: Del 19 de febrero al 28 de junio (415 horas)

MATRIKULA ZABALIK: Urtarrilaren 8tik otsailaren 13ra arte
MATRÍCULA ABIERTA: Del 8 de enero hasta el 13 de febrero

Zure auzotik, mundura

Hezkuntza euskaldun, eleanitz, inklusibo, hurbil, diziplinarreko eta berritzailea ardatz duen Institutua da Artaza-Romo, Pinueta eta Romo auzoetatik gertu dagoena.

Euskara du erdigunean. D eredua da nagusi. Normalizazio-talde sendoa dago, eta, gainera, hizkuntza errefortzurako aukera du. Eredue eleanitza dago. *English Language Assistant* figura ere badu zentroak eta, horri esker, laugarren hizkuntza ere aukera daiteke. Institutua inklusiboa da, aniztasunaren trataera zutabe baitu: dibertsifikazioa, gela egonkorra eta Bidelagun Programa dira bertan. Halaber, bi orientatzaile ditu, baita psikologoa ere. Lehen Ziklorako patio aktiboak dituzte, jolasordu arruntean zein jantokiaren osteko jolasgarai dinamizatzen aproposak. Komunitateari garrantzia ematen dio, eta, gainera, Gobelako metro-geltokitik hur dago. Askotariko azpiegitura ditu ere, Erromo Txiki eta Erromo Handi erai-



Besteak beste, Batxilergo Artistikoa ere eskaintzen dute bertan.

Eskolaz kanpoko askotariko eskaintza ugaria du.

kinak, musika gela... Berrikuntza pedagogikoa du giltzarri: kompetentzietan hezten dituzte ikasleak. Eta Lehen Zikloan eremukako metodologia darabilte, curriculum berria inplementatuz.

Eskola hurbila eta integratzailea

Leioako Artatza auzoan dagoen D ereduko ikastetxe publiko txikia da hau. Ikasleen, irakasleen, langileen eta gurasoen arteko harremanak oso hurbilak dira bertan.

Euskaragaz eta euskal kulturagaz konprometitutako lerro bakarreko ikastetxe familiarra da hau. Leioan dagoen D ereduko eskola publikoa da eta, bere kokapenagatik, udalerriko ikasleek autobus-zerbitzua dohainik izateko aukera dute.

Eskola txikia izan arren, dituen guneek handi egiten dute; eremu naturalez inguratuta, hamaika aukera ditu eskolak bertan dauden ikasleek horietaz goza dezaten.

Ikastetxearen helburua da ikasleek gaitasun eta trebetasun emozionalak eta kognitiboak garatzen laguntzen dien prestakuntza eskaintzea. Horretarako, bere Hezkuntza Proiektua baloreetan eta eskola inklusiboaren printzipioan oinarritzen da. Eskola txikia izanda lan-



Ikastetxea kutsadura akustikorik gabeko gune natural batean txertatuta dago.

Baloretan eta elkarrizketan oinarritzen dira.

taldearen harremana hurbila eta eraginkorra da, inplikazio maila adierazgarria eta ikasleen beharrei egokitutako atentzioa eskaintzen duena aniztasunari erantzun egokia emanez.



GORKA AURRE

ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA & NEUROTRAINERRA
GOI MAILAKO IRAKURKETAN ADITUA

Ulermen urria, ikasleen arazo larria

Gazteen irakurketa-maila etengabeko gainbeheran dago, hala adierazten dute datuek, eta ulermena txarra bada, horrek ezagutzari ere eragiten dio.

Hurrengo matematika ariketa ulertu eta erantzun egokia ematea posible litzatekeela uste duzu honela irakurrita?

Kar gar ik gab ek oa to iak zaz pi mil abe der atz ie hun et aber ro ge itah am arkil okop isuab ald inb adu. Ze ini zan god abe rep isu ag uzt ira hi rur oge itab ostki lo kob erre hune tahi rur og eit aham arpol tsak arg atz enbad ira?

Horrela irakurritz ezinezkoa da edukia ulertu eta ebaztea.

DBH 4ko ikasleek (14-15 urte) ez dute irakurritakoa ulertzen, PISA 2022 Txostenak adierazi lez. Txostenetik at, egoera hori nire jardun profesionalean egunero bizi dut eta ikaragarria da ikasleengan nagusitutako irakurritakoaren ulermenik eza nabarmena.

Irakurketa, azken 13 urteotan (2010-2023) etengabeko gainbehera prozesuan izan da, eta horrela darrai eroriko garbian.

Emaitzek etengabe behera egin dute eta dagie. Irakurtzen ez jakiteaz gain, ikasten ere ez dakie eta ezagutza mailan inoizkorik urrien dabilta.

Ikasleek txarto irakurtzen dute. Astiro, akats ugari eginez eta ulermen urriz. Horrek ulermena errotik trenkatzen du, irakurritakotik ez baitute ezer edo gutxi besterik ulertzen. Arazoak hobera beharrean, txarragora dagi.

Ikasleek, irakurketa geldoa, traketsa, ulermenik gabekoa dakarte. Egunero naiz errealitate horren lekuko. Ikasle analfabeto funtzionalak sortuz gabilta: irakurtzeko eta idazteko trebetasun desegoki eta murriztuak dituzten ikasleak sortuz alegia.

Azken 12 urteotan irakurketa etengabeko jausian izanik, ikastetxeek gurasoei seme-alabek irakurketan «eginean-eginean doa» adieraziz azaldu zaizkie, baina, errealitatea ikustea besterik ez da hori horretara ez denaz jabetzeko, urterik urtera ikasleen irakurketak txarragora besterik ez dagialako. Ikasleek txarto irakurtzen dute. Astiro, akats ugari eginez eta ulermen urriz. Horrek ulermena errotik trenkatzen du, irakurritakotik ez baitute ezer edo gutxi besterik ulertzen. Arazoak hobera beharrean, txarragora dagi eta ikastetxeek, gaiaz duten jakintzarik ezagatik, ez dira irtenbiderik aurkitzen ari. Tamalgarria benetan.

Aipatuaren ondorioz, ikasleek, «irakurtzea ez dut atsegin» sentsazioa barneratuz dabilta, eta, irakurketa arbuigarri izateaz gain, txarto irakurri izanagatik irakurtzeko beldurra sakon baitaritzen duten ikasleak baino ez ditugu. Egoera horretan seme-alabarik baduzu, deitu egidazu egoerak okerragora egin baino lehen.

hiruka

HARTU BOLADA ONA GUGAZ. EMAIOZU BULTZADA ZURE NEGOZIOARI!

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitetz gugaz harremanetan:
944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus

IKASTOLAK
Eskolaz kanpoko ekintzak

HAMILTON
Play-School

Enpresak

ON LINE
ESKOLAK
Teknologiaren aurruntuta

INGELESA ALEMANIERA FRANTSESA

Taldeak, enpresak eta partikularrak
Eskolaz kanpoko ekintzak
Maila guztiak
Ingelesa hiru urtetik aurrera
Taldea txikiak
Inglaterran egonaldiak

hamilton
IDIOMAS

SOPELAN, Sipi 11.
946 763 012 - info@hamiltonidiomas.com
www.hamiltonidiomas.com



**Euskarari
atera kontuk!**

JOANES ATXA OLAIZ

Hitz aldrebesak eta hitzak aldrebes

Zerk definitzen du hizkera bat edo dialekto bat? Hitz xeibre eta aldrebestuek, agian? Nola esaten da larunbata, Maulen? *Neskenegüna!* Hitzzen aniztasuna deigarria da, eta belarrira jotzen digu, zuzen-zuzenean. Hala ere, badira hiztegiarekin horrenbesteko zerikusia ez duten beste zenbait ezaugarri, hizkeren bereizgarri ere badirenak. Horien artean gutxien lantzen denetako bat sintaxia da. DBHko ikasle askori ulertezin egiten bazaie ere, sintaxia esaldietako hitzen ordenaren analisisa besterik ez da (xehetasunak alde batera utzita). Askotan, hizkuntzalariak gehien pizten dituen gaia da, horrek ematen dizkigulako hizkuntzari buruzko pista oinarritzkoenak.

Zer esan Uribe Kostan erabiltzen dugun sintaxiari buruz? Ondo baino hobeto dakigu, hitzak hainbat modutan ordenatu ditzakegula, euskaraz. Dena den, uribekostarrok badugu hitzak aldrebes jartzeko bizio jakin bat, beste herri batzuetan duten bezala. Esate baterako, zenbatzen dugunean, **bi** zenbatzailea izenaren eskuinean jartzen dugu. Horrela, barra ertzean edatekoa eskatzerakoan: «Kaixo! Kaña bi mesedez!» esan ohi dugu. Gainera, hurrenkera aldrebesten diegu **hau** edo **hori** moduko erakusleei, izenaren ezkerrean kokatuz. Horrela, pintxo eskatzerakoan: «Ah! Eta hori tortilla, mesedez!» diogu.

Hitzei kokapena aldatzea oso ohikoa da munduko hizkuntzetan, eta euskara da hurrenkera askea duen horietako bat. Hala ere, gure inguruko herrietan erabiltzen dugun hurrenkera, nahiz eta aldrebestua deitu diogun, ez da beste hizkeretan erabiltzen diren hurrenkerak baino okerragoa, ezta zuzenagoa ere. Norberak aukeratu dezala, beraz, kaña bi edo bi kaña! ◀

Noa Cliff Musikaria

«Disko helduago eta ausartago bat egin nahi nuen»

Itsaslabarrak eta kresala zainetan eta abestietan daramatza Noa Cliffek. Aurreko abenduan, bere bigarren lana argitaratu zuen, La Tormenta. Lan berri horretan eboluzio artistikoa eta ausardia islatu ditu, besteak beste.



Diskoa sare sozialen bidez edo bere webgunean eskuratu daiteke. HODEI TORRES

Lehen diskoaren aurkezpenak pandemia harrapatu zuen bete-betean, baina musikariak azpimarratu duenez, «ni oso pertsona positiboa eta baikorra naiz eta pentsatu nuen hain txarto geunden momentu horretan heldu zela jendearen etxeetara zuzenean heltzeko». Azaldu duenez, jendearengandik jasotako babesari esker grabatu ditu diskoak, eta, besteak beste, *crowdfunding* kanpainak egin ditu horretarako.

Iazko abenduan, bere bigarren estudioko lana aurkeztu zuen, *La Tormenta*. Azaldu du horretan ere bere barne-barnetik idatzitako abestiak dituela, «bizi izandakoa edo beste norbaiti gertatutakoa nola bizi izan dudana kontatzen dut, oso pertsona enpatikoa bainaiz». Halaber, bigarren lan hori «modu kontzienteagoan» egin duela ere azaldu du, gehiago esperimentatzen, aurreko lanetik ikasitakoa aplikatzen eta ausartago izaten

saiatzen: «Hitz egiten dut antsietateari buruz, eta tratu txarren eta harreman toxikoen inguruko abestiak ere ditut». Grabaketa Jagoba Ormaetxe produktoreagaz batera egin du, eta emaitza ona elkar-uleretze horren eraginez ere izan dela aitortzen du.

Aurrera begira, diskoaren kontzertuak ematea gustatuko litzaiokeela aurreratu du: «Entzutera etorri direnek komentatu dute zuzeneko polita dugula, eta *La Tormenta* zuzenean entzuteko disko bat ere dela uste dut, bandak ere izugarriko indarra ematen diolako». Horrez gain, bere abestiak gazteleraz izan arren, bera euskalduna da eta aurrerago euskaraz grabatzea ere gustatuko litzaiokeela dio. ◀

QR kodea
eskaneatu eta
irakurri osorik
hiruka.eus
atarian.



Maitane Nerekan *Euskaraz, zergatik?* ipuin ilustratua

«Ipuina pizgarri bat da, norberak galdera hori planteatu eta solasaldia gara dezan»

IKER RINCON MORENO ▶

Maitane Nerekan Umaranek bere lehenengo ipuin ilustratua aurkeztu zuen abenduan Algotan: *Euskaraz, zergatik?*. Getxoko Kultur Etxearen sormen bekak bultzatuta argitaratu du lana, euskararekiko atxikimendua lantzen duena haur filosofiaren proposamenetik. Kontakizuna Getxon dago kokatuta, eta euskaraz zergatik egiten dugun hausnartzeko tresna izatea gura du, ume zein helduentzat. Bera arduratu da testuaz eta edukiez, baina irudiez arduratu dira Eider Nerekan eta Laurita Siles ilustratzaileak.

Filosofia irakasle izanda, nondik dator mota honetako ipuin bat idaztearen ideia? Idazteko ohitura izan dut beti, eta inguruotan izan dudana esperientziagatik, euskararekiko atxikimenduarekiko estrategia izan da gauza bat mugitu izan nauena beti. Filosofia irakaslea naiz, ogibide dut, baina baita afzioa ere. Orduan, horren inguruan idatzi izan dut beti; asko gustatzen zait galderak planteatzea, horren inguruko zirriborro bat idatzita nuen, eta lagun batek animatu ninduen aurkeztera Getxoko Udalak dituen sormen beketara. Hala, aurkeztu nintzen, eta eman zidaten. Orduan, dagoeneko konpromisoa nuenez, horrek bultzada eman zidan guztiari forma emateko.

Ipuinaren izenburua bera galdera bat da. Zer landu gura duzu horregaz? Ipuinaren hasieran, marko teoriko bat izango litzatekeena idatzi dut, helduentzat bideratuta dagoena, eta hor planteatzen dut, besteak beste, zelan dagoen euskararen estrategia, sentitzen dudana esperientziagatik, oso estrategia zaharkituak erabiltzen ditugulakoan. Solasaldi filosofikoaren esparruan konexio asko sortzen dira eta, kasu honetan, konexioa euskararekiko atxikimendua da. Dena galdera batetik abiatzen dut, eta ipuina bera aitzakia edo pizgarri bat da. Probokazio bat da, norberak bere bizitzako esparru ezberdinetan galdera hori planteatu eta solasaldia gara dezan.

Azken finean norberaren hausnarketara dago bideratuta, ezta? Bai, nik esaten diodan «norberaren hausnarketa komunitarioa» bilatzen dut. Banakoen hausnarketa komu-



Eider Nerekan, Maitane Nerekan eta Laurita Siles, aurkezpenean. HODEI TORRES

Metodologia

«Helburua ez da erantzun bateratu edo zehatz bat bilatzea; akordiorik bilatzen ez duen haur filosofiaren metodologia baliatu dut hemen, eta asmoa da, hausnarketan, ikusi eta entzundakoarekin geratzea, prozesuak berak kutsu bat uzten duelako beti»

nitarioa gustatzen zait, norberak abiatzen duelako hausnarketa bere barruan, baina era kolektiboan egiten duzunean hor sortzen da solasaldia, filosofikoa, umeengan abiatu arren. Askotan, bestean aurrean jartzen garenean, ispiluak sortzen ditugu, eta horrek asko laguntzen digu erroei heltzeko.

Ipuinak umei bideratutako gauzak izan ohi dira, baina hau, esan bezala, helduei ere begirakoa da. Zergatik erabili duzu erregistro hori? Pizgarria den zerbait nahi nuen, hausnarketa komunitarioa egitera animatzen duena, eta ipuina da elementu labur bat, intergenerazionala, denontzako dena, umeak eta helduak elkartzeko dituen eta balio duena aitzakia edo abiapuntu bezala prozesu hori abiatzeko gero.

Ipuinetan, gainera, garrantzi handia dute irudiek. Zelakoa izan da kontakizuna ilustratzeko prozesua? Niretzat prozesu magikoa izan da; idatzizko dokumentu bat entregatu eta, bat-batean, hori ipuin bihurtu da. Maila batean, magikoa da, gainera, oso polita ere egin ahal izan dudalako lagun eta familia artean, Lauritarekin eta Eiderrekin. Aldi berean, konplikatu ere izan da, lehenengo esperientzia izan delako. Marrazkiak planteatzerakoan, artistek buruan dituzten gauzak pentsatu behar dituzu, eta hori niri kostatzen zitzaidan. ◀

Odol zikinak

ITXASO PAYA RUIZ Sortzailea



Opor egunotan, Harry Potterren filmak ikusteko aprobetxatu dugu askok. Ikusi aldiro hausnarketa eta ideia berriak etortzen zaizkit; hala ere, badago bat beti bueltaka dabilena: odol zikinena.

Odol zikina mespretxuzko terminoa da Harry Potterren munduan, aztiekin erabiltzen dutena guraso muggleetatik datozen magoak izendatzeko (mugglea magiarik egiteko gaitasunik ez duen pertsona bat da). Jatorri erabat magikoa dutenak odol garbiak dira, ordea. Mago edo sorgin bati buruz hitz egitean «odol zikina» terminoa erabiltzea irain oso larritzat hartzen da.

Hermione Harryren lagun azkarra da. Muggleen alaba izanagatik bera da magia eskolako ikaslerik finena, ukendu eta sorginkeriei buruz gehien dakiena. Hala ere, beti odol garbi harro horien irainak entzun behar. Bost axola magiarekin trebea bada eta horretan trebatu bada; guraso muggleak dituenek sekula ez da iritsiko benetako sorgin bat izatera, egiten duena egiten duela.

Ariketa bat proposatzen dizuet, aurreko testuko zenbait hitz trukatzeko ditugu: odol zikina: euskaldunberria; odol garbia: euskaldunzaharra; aztia/magoa: euskalduna; mugglea: erdalduna; magia: euskara; Hermione: edozein euskaldunberri; Harry Potter: edozein euskaldunzahar.

Eskalada modan dago

IRENE LARRABEITI Leioa Mendi Taldea



Errege opila erretzeko itzaropenez, boulderrera joan nintzen entrenatzera. Sartu bezain laster konturatu nintzen bete-beteta zegoela. Gabonetako gehiegikeriak erre nahi zituzten eurek ere bai? Badirudi ezetz. Duela bi urte hasi nintzen sentipen honekin. Egunero jende berria etortzen zen eskalatzera. Ez geunden betiko hamar lagunak, kuadrilla berriak osatzen ari ziren. Inbasioa nire betiko rokodromoan. Hasiera batean honek haserretu egin ninduen. Leku gutxiago zegoen trabesiak egiteko, denbora gehiago itxaron behar zen suspentsioak egiteko... Bazirudien instalazioak txiki geratzen ari zirela. Batzuk honetaz konturatuta, rokodromo berriak ireki zituzten, modernoagoak eta instalazio erraldoiekin. Hasieran esan nuen beti entrenatuko nuela Sakonetan, baina laster, zentro berrietara joaten hasi ziren nire lagunak. Beren esperientziak entzunda, jarraian joan nintzen probatzera, apur bat traidore sentitzen nintzen arren. Espero ez banu ere, izugarri gustatu zitzaidan, dena prestatuta zegoen katu oinak ipintzeko eta gozatzeko. Orain, zentro berri batean ere entrenatzen dut, eta bietan ikusten dut jende berria ondo pasatzen. Espero dut hau moda bat ez izatea eta hain polita den kirol hau jende gehiagok ezagutzea.

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Emozio berriak dituzu zain, bizitza beste begi batzuek ikusarazten lagunduko dizutenak. Zure egunerokoa kolore-nota bat jarriko duzu.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Mugatzen zaituen hori zure bizitzatik aldentzeko unea da. Egin apostu zure alde, eta berreskuratu behar duzun lasaitasuna.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Telebistako programa horrek bizitza xurgatzen dizu. Denbora-pasa ona da, baina noizean behin atsedean hartu behar duzu.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Gauean ezin baduzu lorik egin, gustuko duzun musika ipini eta egin dantza logelan! Gorputza nekatu eta burua lasaituko duzu.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Gogoratu sareetan ikusten dugun guztia ez dela egiazkoa: ez jauzi konparaketetan, zauden moduan ederto zaude.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Oporren ostean lanera bueltatzea gogorra da, eta burua zeruan dugula gabilta. Lortu agenda bat ezker ihes egin ez diezazu.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Neguan gaude eta zuk udan pentsatzen duzu etengabe. Egon geldi une batez eta gozatu orainaz: neguak ere kolore ederrak ditu.



Lastoa
(Uztailak 19-Abenduak 17)

Batzuetan, asko ahalegindu arren, ez duzu lortzen bilatzen ari zinen emaitza. Ez ahaztu zure lanak ez duela baliorik galtzen.



Iratzea
(Abenduak 18-Irailak 16)

Gabonetarako hainbeste opari erosi ondoren, apur bat aurreztea dagokizu orain. Neguko arropa behar? Bilatu bigarren eskuko dendetan!



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Zure inguruko guztiak erdi gaixorik daude. Kontuz ibili eta laranja-zuku asko hartu, ez dagizula C bitamina faltan izan!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Azkenaldian ez diezu zure sentimenduei erreparatzen. Zaila da zaurgarri agertzea, baina zure buruari zor diozu!



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Komeni zaizu pantailara gutxiago begiratzea, iritsi da Gabonetan oparitu zituzten liburu hori irakurtzen hasteko unea.



Olentzero sanferminero

Olentzero joan zaigu... sanferminetara!!! Urte berriak **burutik eragin** didala pentsatuko duzue. Ez guztiz. Izan ere, bada erlaziorik Olentzeroren eta sanferminen artean. Baina azal dezadan 'neure' aurkikuntza **jazo** zen moduan.

Gabonetako opor goiz batean, etxeko sofan **nentzala** tiktokeatzen, bideo batean musika banda bat ikusi nuen Iruñeko udaletxearen aurrean. Olentzeroren doinua jotzen **ziharduten**, eta heldu zirenean «Ai, urde tripaundia» zatira, zerbaitek klik egin zidan burmuinean. Non entzun ote dut nik doinu hori... Arranoa! Sanferminetako kantarena da eta!!! «A Pamplona hemos de ir, con una media, con una media...». Eta hortik tiratuta, aurreko zatiaz oroitu nintzen: «Olentzero, buruhandia, entdimentuz jantzia...». Eta buruak berriz sanferminetara: «Uno de enero, dos de febrero, tres de marzo, cuatro de abril...». Zer kristo! **Zoro haizeak jo** ote nau ni, ba?

Hona hemen ezustekoaren osteko ikerketatxoaren berri.

Olentzeroren abestiak Lesaka aldeko herri doinu bat du oinarri, eta Jose Gonzalo Zulaika Arregi **Aita Donostiak** eta Emilio Jose Esparza Viela lesakarrak egokitu omen zuten XX. mendearen lehen erdian.

Sanferminetako «**Eskailera**»ren doinua, berriz, Silvano Cervantes Iñigo nafar musikagileak **atundu** bide zuen, aipatutako nafar herri doinutik aterata. Beraz, herri doinu beretik sortu dira Olentzeroren eta sanferminetako abestiak, euren arteko antzekotasun handiak salatzen duenez.

Baina hor ez da amaitzen kontua. Izan ere, Lesaka aldeko herri doinu alai horrek **Okzitania**ren iparraldeko herri doinu batean bide du jatorria. Paul Marie Théodore Vincent d'Indy musikagile frantziarrak *Chants de Vivarais* izeneko bere bilduman jasotzen du ikergai dugun doinua. Bilduma berorretako 73. abestia da eta *La Farandole de Joyeuse* du izena. Doinu hori entzutea aski da, bila gabiltzan doinu berbera dela ohartzeko!!! Vivarais (okzitaniaraz Vivarés) Okzitaniako eskualde bat da, ia osorik Ardecha departamenduan sartzen dena (Auvernia-Rodano-Alpeak eskualdea). Eta bertan dago Joyeuse herria (okzitaniaraz Juès). Bada Juèsako alkate Nicolás Mauricek jaso omen zuen doinu hori 1900. urtearen inguruan.

Juésan jasotako abestiaren hitzei erreparaturik, hauxe dino leloak okzitaniaraz: *Quan n'aurèn tout atçìoba / Fumèn la pipo, fumèn la pipo / Quan n'aurèn tout atçìoba / Fumèn la pipo, siin tobà*. (Guztia amaitzen dugunean, erre dezagun pipa, erre dezagun pipa; guztia amaitzen dugunean, erre dezagun pipa, tabakorik gabe).

Azkenean, hara non agertu zaigun Olentzeroren pipa **otoz otoan**. Urte berri on, lagunok!!! ◀



Berba azoka

Burutik eragin

Zoratu eragin, eroarazi.

Jazo

Gertatu.

Nentzala

Etzanda nengoela (*etzan* aditz trinkoaren forma).

Ziharduten

Ari ziren.

Zoro haizeak jo

Buru nahastu edo aldrebestu.

Eskailera

Sanferminetako abesti ospetsu bati «Eskailera» deitzen zaio, Ignacio Baleztena Azkaratek gaztelaniaraz asmatutako hitzak dataz data gorantz doazelako San Fermin egunera arte: 'Uno de enero, dos de febrero...'.

Atundu

Prestatu, gertatu.

Okzitania

Okzitania okzitaniar edo oc-eko hizkuntza erromantzea hitz egiten den lurraldeari deritzo. Frantziaren hegoaldea, Italiako Piemonte eta Kataluniako Arango harana barne biltzen ditu. Euskal Herriari dagokionez, Baiona, Miarritze eta Angelu aldean ere hitz egiten zen okzitaniar, bai eta Nafarroa Behereko iparraldeko herri batzuetan ere. Erdi Aroan Nafarroako eta Aragoiko zenbait tokitan ere mintzatu zen, euskara eta nafarrera-aragoierarekin batera.

Otoz otoan

Bat-batean, derrepentean.

Garazi Mallabiabarrena eta Nerea Berges Lutxana Arraun Elkarte

«Zaletasuna galtzen joan da, bizi guztiko zaleak geratzen zaizkigu»

Lutxana Arraun Elkarteak ibilbide luzea du, baina taldea ez dago bere momenturik onenean, horregatik, arraunlari bila dabilta herrian zaletasuna hauspotu eta berriz ere trainerua osatu ahal izateko.

ANDER ZARRAGA ►

Nolako egoeran dago gaur egun taldea? NEREA BERGES: Egia esan, taldearen egoera ez da guri gehien gustatuko litzaigukeena. Urteak egon dira Lutxanak arraunlari kopuru garrantzitsua izan duela, baina COVID-19tik beherakada garrantzitsua izan dugu, eta, gaur gaurkoz, arraunlariak behar ditugu. Orokorrean, arrauna ez dago bere momenturik onenean. Gure inguruan Deustu eta Kaiku ditugu, biztanle asko dituzten udalerrietako klub oso garrantzitsuak dira, eta Erandion eta Lutxanan betidanik ohitura egon den arren, gaur egun ez dugu hainbeste babesik, eta tradizio hori lausotzen doa pixkanaka. Zaletasuna galtzen joan da, eta herrian bizi guztiko zaleak bakarrik geratzen zaizkigu.

Zein kategoriatan lehiatzen zarete? GARAZI MALLABIABARRENA: Kimuak, haurrak, kadeteak, jubenilak eta seniorrak diren arraunlariak ditugu, arraunean dauden kategoriaz guztiak, hain zuzen. Trainerua atera dugu Gabonetan arraunlariei hori delako gustatzen zaiena, baina lehiatzeko ez dugu mutilen talderik, eta nesken kasuan jaitsieraren bat egiteko bakarrik; ez gaude lehiatzeko moduan. Bateletan eta banku mugikorrean aritzen gara lehiatzen, nesken zein mutilen kategorietan.

Diziplinaz gain, zer gehiago ematen die arraunak gazteei? G. M.: Arraunak konpromiso handia eskatzen du, ez da beste kirol batzuetan bezala, ordezkoak ere egon daitezela edo indibidualagoak direla, hemen taldean



Nerea Berges eta Garazi Mallabiabarrena Lutxana Arraun Elkarteko kideak. HODEI TORRES

Hamaika aukera

«Gazteek hainbat aukera dituzte; lehen, futbolerako balio ez zuena arraunera etortzen zen; orain, hainbat aukera dituzte gurera etortzea baino erosoagoak direnak»

Trainerua

«Trainerua atera dugu Gabonetan arraunlariei hori delako gustatzen zaiena, baina lehiatzeko ez dugu talderik»

entrenatzen da beti eta bat ez baldin badator besteei kalte egiten die, beraz talde-lana oso garrantzitsua da.

Zer eskatzen diozue etorkizunari? N.B.: Emakumezkoen edo gizonezkoen sei senior etortzea izugarria izango litzateke traineru bat osatzeko. Seniorrak 18 urtetik gorakoak dira, baina kategoriaz guztietako jendea da ongietorria eta beharrezkoa eskola oinarritik osatu behar dugulako. Horrek ikusgarritasuna ere emango liguke eta babesle gehiago ere eskuratuko genituzke, Espainiako banku-mugikorreko txapelketan edo batelen lehiaketetan aritza ondo egon arren, traineruetan aritza da benetako ospea ematen dizuna.

G.M.: Traineru bat osatzeko hobeagoa da oinarritiko kategorietatik hastea, kanpoko jendea etortzea baino. Biak behar ditugu, baina taldea osatzeko hobeagoa da oinarrietatik hastea, liga batzuetan ere harrobiko arraunlarien kopuru jakin bat betetzera ere behar izan zaituztelako. Horrez gain, herrian eta inguruan arraunarekiko zaletasuna ez dadila galdu gura dugu, jendea ikustera eta probatzera etor dadin. ◀



QR kodea eskaneatu eta irakurri osorik hiruka.eus atarian.

Olaia Tejada Patinatzailea eta dantzaria

«Ez dago gozarazten ez nauen dantzarik»

IKER RINCON MORENO ▶

Kirok dantzan birritan munduko txapelduna da Olaia Tejada; 2022an jantzi zuen aurrenezko urrezko domina, eta 2023ko uztailean bigarrena. Aurten, titulua berriz bere egiten saiatuko da, Bartzelonan. Berangoztarrak gogoratzen duenez, txiki-txikitatik aritu da dantzan, baina baita patinen gainean ere. Dioenez, bere ibilbidea ulertzeko, bere amama, izeba eta amak egindakoari erreparatu behar zaio.

Zer balorazio egiten diozu egindako ibilbideari? Zaila da oraindik bidaiatzeko eta gozatzeko asko duela uste dudana ibilbide bat baloratzea. Dena den, beti azpimarratzen dut alai bezain zorrotza den karrera bat izan dela, eta izaten jarraitzen duela. Diziplinari, irmotasunari, pasioari eta lanari eskainitako bizitza izan da, eta izango da, kirolean ez ezik ikasketetan ere.

Patinaje artistikotik dantzara egin duzu salto, ala alderantziz? Zein modalitatetan sentitzen zara erosoan? Nire ibilbidea ulertzeko, amonari erreparatu behar diogu. 40-50eko hamarkadetan jada kalean patinatzen ari zen uhalezko patin tipikoekin; 70-80ko hamarkadan, nire izebak eta amak 3-4 urte eskas zituztenean, patinatzerara eraman zituzten «profesionalki». Biek txapelketa dezente irabazi dituzte, eta ni jaio nintzenerako entrenatzaile eta arbitro ziren. Bi urte nituenean, patinatzaile eta patinen artean arrastaka nengoan eta, 6 urte nituela, serioago hartu eta benetan patinatzen hasi nintzen; 9 urterako, nazioarteko lehenengo txapelketara iritsi nintzen. Gainera, betidanik izan dut gustuko balleta, baita beste dantza-estilo asko ere. Pandemiarekin, ezinezkoa izan nuen patinatzea, baina bai dantza egitea, eta pandemiaren osteko Espainiako Dantza Txapelketara sailkatu nintzen. Itxaropenik gabe aritu nintzen, baina 3. geratu nintzen; hala, hurrengo urtean erreplikatu eta urrezko domina jantzi nuen.

Zer nolako lotura dute kirol biek? Biak landu dituen kirolari gisa, esango nuke ikusleei aurre egin behar zaiela batean zein bestean,



Show Getxo patinaje-klubeko kidea da, eta Fisioterapia ikasten ari da. HODEI TORRES

Italian ere entrenatzen

«Teknikoki hobetzeko, dantzan handiak diren Giulia eta Vittorio Anellirekin lan egiteko aukera izan dut eta, amarekin, bigarren munduko kopara eraman ninduten. Nik beti esaten dut nire ama eta biok bat egiten dugula, ama-alabak garelako, entrenatzaile-ikasle, eta bera gabe ezinezkoa litzateke aurrera egitea. Berak irakatsi dit, aitarekin batera, ikastearen eta etengabe eta irmo aurrera egitearen garrantzia»

Aitortzak Getxon eta Berangon

«Beti egon naiz, eta egongo naiz, oso eskertuta eta pozik nire bi udalek, Berangok zein Getxok, baldintzarik gabeko laguntza ematen didatelako. Harrotasuna da bai alkateek eta baita haien atzean dauden taldeak ere hainbeste indar, enpatia eta maitasuna transmititzea»

artistikoki atsegina den zerbait eskainiz. Eta hori da gaur egun nire ikasleei erakusten didana, eskakizun tekniko eta artistiko horiek.

Izan ere, lehiatzeaz gainera, Show Getxo Patinaje taldeko entrenatzailea ere bazara... Bai. Nire kluba deskribatu beharko banu, hiru hitz erabiliko nituzke: dibertigarria, dedikazioa eta taldea. Urteak daramatzat kirolari moduan, eta talde batu bat gara, non puzzlearen pieza guztiak zaindu eta garrantzitsuak diren.

Zeintzuk erronka dituzu gaur egun eskuartean? Hiru hilabete barru Berlinera (Alemania) goaz. Badakigu oso lehia zorrotzari aurre egingo diogula, urteko zorrotzenetakoa, baina ilusioz eta gogo handiz lan egingo dugu daukagun onena lortzeko.

Aurten, gainera, Bartzelonan jokatu den Munduko Kopa duzu helburu; zelan aurreikusten duzu lehia hori? Bartzelonan jokatzeke zortea izango dugu, eta niretzat oso berezia da hori, etxean arituko naizelako, nire jendearengandik gertu. Izan ere, nire familiak nire lehiatzeko gozatu ahal izango duen lehenengo Munduko Kopa izango da. Berezia izango dela uste dut, eta, zalantzarik gabe, oso desiratua. ◀

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA


SOLUZIOAK:



AURREKO SOLUZIOAK



Zure ustez kiratsaren iturria izan litekeen hori marraz ezazu laukian.



Sudokua

Hau kiratsa!!! Arrautza ustelen bat hautsi da? Paper fabrikan lanean ari dira? Arranopola, zer gertatu da hemen?! Bete itzazu hutsuneak KIRATS hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (K, I, R, A, T eta S). Kontuan har hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Handienetik txikienera

Ordena itzazu handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienerari 9.

ONGI ETORRI

FANFEST

LEHEN HEZKUNTZA OSOA

1. mailatik 6. mailara ★ IBAIZABAL



Labirintoa

Lagundu gure detektibe pareari gaizkilearen arrastoa jarraitzen. Labirinto honetan giza urratsak dituzten laukietatik joan behar duzu, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ezin duzu diagonalean mugitu.



Gaiztometroa

Hiltzailerik zikoitzenak eta detektiberik petralenak Baztanen biltzen dira urtarrilean. Ba al dakizu zergatik? Nobela beltzaren astea antolatzen dutelako han, hain zuzen. Eta ba al dakizu zer izen duen jaialdi horrek? Ez? Jarraitu gezien norabideari, eta bidean batzen dituzun hizkiak idatzi lauki zurietan, hurrenez hurren. Hortxe aurkituko duzu erantzuna.

B	L	A	C	K	I	S	B	E	L	T	Z
N	O	I	R	E	G	I	X	K	U	N	I
		(H	K	B	O	R	T	Z	I	R
!	(U	N)	E	S	K	E	L	E	N
M	U	R	M	I	L	K	A	W	?	S	=
K	R	I	M	I	B	A	L	I	S	T	I
U	R	G	A	I	N	E	L	T	U	L	A
Z	U	Z	T	A	R	B	I	Z	B	A	T
X	/	O	Q	!	F	P	E	A	D	U	E

Garraio publikoa erabiltzen duzu zure egunerokoan?



ALBERTO MARTINEZ LOPEZ
BILBO

Duela hiru urte garraio publikoa maiz erabiltzen nuen, eta iruditzen zitzaidan armaz egindako lapurreta bat zela. Ez da posible hainbeste ordaintzea eta gero metroko geltoki batean ere ez egotea komun publikorik. Komunera joateko beharra baduzu, zer? Gainean kaka egin behar duzu? Lotsagarria da.



PAZ SANTANA
ALGORTA

Batez ere, Bilbora joateko metroa erabiltzen dut, oso eroso delako. Oraingo laguntzak oso ondo daudela uste dut. Hala ere, normalean Barik txartela erabiltzen dut, orduan, ez dut uste oso prezio garestia duenik bidai batek. Nire alabak tren eta autobusa ere erabiltzen ditu eta oso pozik dago deskontuekin.



MARIO LASARES
AREETA

Metroaren prezio arrunta euro bat eta erdi ingurukoa da; oso garestia iruditzen zait. Gaztetan, metroa hartzen hasi nintzenean, 80 zentimo ziren. Garraio publikoa lehentasuna izan behar da ekonomia sustatzeko eta herritarrak mugitzen laguntzeko. Gainera, kutsadura murrizteko ezinbestekoa da.



LOURDES GOMEZ
LEIOA

Normalean, Bilbora joaten naizenean erabiltzen dut, autoz joatea baino askoz erosoagoa baita. Lanera oinez nator, baina nonbaitera mugitu behar naizenean beti noa autobusez edo metroz. Uste dut azken beherapenak nabaritu egin direla: orain, Barikak, kargatzen dudanean, gehiago irauten dit.



ANE GALDOS GALLASTEGI
ALGORTA

Hemengo garraio publikoak duen prezioa oso altua da. Suitzan bizi izan naiz eta bertako bizitza oso garestia da. Hala eta guztiz ere, hango garraio publikoa ez da hemengo bezain garestia. Hemen behin-behineko bidai batek ia bi euroko kostua du. Deskontu barik jendeak nahiago du kotxea hartu.



CAMILO SOTELO ALONSO
LEIOA

Garraio publikoa egunero erabiltzen dut lanera joateko. Deskontuen arretako prezioa oso garestia zen, eta behin-behineko bidaiena, are gehiago. Nahiz eta laguntza hauek mantentzearen erabakia hartzea kostatu zaien, espero dut etorkizunean irautea. Izan ere, oso lagungarriak eta beharrezkoak dira.



MARIA FERNANDEZ
LEIOA

Oso gutxi erabiltzen dut, bizi naizen tokitik ez delako garraio publikorik pasatzen. Gainera, erabili dudanean iruditu zait garestia dela, eta uste dut merkeagoa izango balitz jende gehiagok erabiliko lukeela. Egunero erabili beharko banu agian autoa erabiliko nuke, prezioa antzera aterako litzaidakeelako.



LANDER PRIETO
ERANDIO

Bonurik ez baduzu zoramen bat iruditzen zait metroko bidai bakar batek deskonturik gabe duen prezioak. Ez du zentzurik. Nahiago dut nire herrian gelditzea metroa hartu baino lehen. Lau lagun inguru bazaudete hobeto datorkizue denon artean taxi bat ordaintzea, segun eta nora joan behar duzuen.



Fern Marie Bowles

Nongoa

Fordingbridge.

Adina

34 urte.

Zertan dabil

Lanean.

Noiz heldu zinen?

2020an.

Noiz arte bertan?

Auskalo.



Lurralde

Erresuma Batua.

Azalera

41.285 km².

Hiriburua

Londres.

Biztanleria

56.489.800 (2021).

Hizkuntzak

Ingelesa da ofiziala, baina horregaz batera beste hizkuntza britainiar eta gaeliko batzuk entzun daitezke: galesa, eskoziera, gaelera, irlandera, Ulsterko eskoziera, manxera eta kornubiera.

Moneta

Libera esterlina.

«Baso oso zaharrak daude, eta animaliak libre ibiltzen dira»

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Sorterritik urrun bizi izan da beti Fern Marie Bowles. Bordelen (Frantziako Estatu) Zientzia Politikoak eta Nazioarteko Harremanak unibertsitateko ikasketak amaitu ostean, Bruselan (Belgika) eta Bartzelonan (Herralde Katalanak) egon da lanean. Beraz, berarentzako «naturala» da Ingalaterratik at bizitzea. Egun, Sopelan erai-ki du bere bizitza, eta, ayurvedan sakonduz, sendabelarretan eta yogan aritzen da; Europar Batasuneko gaietan lan egin ondoren, konturatu zen bere bihotzak «beste bide bat» eskatzen ziola. Hala ere, lerrook idazterakoan haurdun dagoenez, momentu honetan ez dago lanean.

Gaztea zenean bere gurasoakaz Landetara joaten ziren oporretan, eta, 2019an bertara bueltatu zen lagun bat bisitatzerara. Orduan, Euskal Herritik gertu dagoen txoko horretaz maitemindu eta 2020an gurera etortzea erabaki zuen, Bartzelonan sorterriko euria eta larretako berdea faltan zuelako. «Dei bat sentitu nuen Euskal Herrira bizitzera etortzeko, natu-

ra ederragatik, klimagatik, Atlantikoagatik eta jende atseginagatik», aitortu du Bowlesekin. Euskaltegian egondakoa izan arren, zailtasunak izaten ditu bere eguneroko bizitzan euskara praktikatzeko Sopelan. Hala ere, argi du aurrerago berriro ere euskara ikasteari ekingo diola.

Ingalaterrako ohiko otordu bat domeketako errekoa dela azaldu du: haragi erreaz (oilaskoaz, indioilarrak edota ahateaz) eta labean erretako barazkiez osatzen da platera, esaterako, patatak, azenarioak, arbiak, azak edota sasoiko barazkiak, urtarorearen arabera. Horregaz batera, saltsa bero bat egiten dute, haragi-eta tipula-saldagaz. Halaber, edari beroak dira nagusi han: «Kafea hartu beharrean, gosarrietan te beltza esneagaz hartzen dugu, hori da ohikoena».

Hala ere, bere herriaren inguruko natura eta landak dira Bowlesekin maitasunez gordezten dituen memoria gogoangarrienak: «New Forest parke nazionala ondoan nuen, eta batez ere udagoienan eta neguan paseo luzeak ematen nituen bertatik. Baso oso zaharrak daude, eta ohikoa da animaliak libre ibiltzea». ◀

Pello Bilbao Txirrindularia

«Surf taula eramango nuke irla isolatu batera»

TESTUA ETA ARGAZKIA: **ANDER ZARRAGA** ▶

Defini ezazu zeure burua berba bitan. Zuzena eta lasaia.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera? *Man on the moon.*

Zure haurtzaroko oroitzapen bat? Lagunekin egurrezko txabola eraikitzen.

Badaukazu ohitura txarren bat? Denbora justuegi kalkulatzea hitzorduetara joateko.

Eta aitor dezakezun bizio bat? Kirola.

Zein da zure ametsetako bat? Munduan zehar bidaiatzea inor iristen ez den txokoetatik.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera? Surf taula.

Gorroto duzun topikoa? Ziklistak dopatu egiten garela.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik badago? Galapago irlak.

Zer hutsegite ez zenuke sekula barkatzen? Gezurra.

Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian? Mundu mailan herrialde guztien desmilitarizazioa.

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena? Zentzudun nabil azken aldian, kar kar.

Kolore horia, bai ala ez? Zergatik? Bai, Tourreko lider maillota jantziko banu...

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik? Ogoño, ikuspegi ezin hobea duelako.

Zerk ematen dizu beldurra? Memoria galtzeak.

Oihukatu duzun azken aldia? Tourreko etapa irabazterakoan.



Laburrean. Gernika-Lumon 1990ean jaioa, Gernikako Txirrindulari Elkarteko harrobian eman zituen lehiaketa-txirrindularitzan lehen pedalkadak, 2010ean Orbea taldera pasatu eta txirrindularitza profesionalaren munduan sartu arte. Orduetik, etengabe aritu da taldez talde eskalatzen, eliteko mailarik altuenera iritsi arte: Euskaltel-Euskadi (2010-2013), Caja Rural (2014-2016), Astana (2017-2019) eta 2020tik Team Bahrain Victorious taldean ari da. Bere palmaresean, besteak beste, aipatzekoak dira 2019an Giroan irabazitako bi etapak edo 2023ko Frantziako Tourrean irabazitako etapa eta eskuratutako seigarren postua. Bizikleta gainean lortutakoaz gain, Bilbao famatua da zaleen artean bere izaera adeitsuagatik, besteak beste, eroritako baten ondoren hil zen Gino Mäder bere taldekidea omentzeagatik edo iazko Tourrean Basoak SOSen alde egindako kanpainagatik.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Euskaraz zergatik? ipuina

Kontakizun eder hau euskaraz zergatik egiten dugun filosofikoki hausnartzeko tresna paregabea da, ume zein helduentzat. Ez ezazu irakurtzeko aukera galdu!

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 4a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Esnearen kolorekoa antzezlan

Otsailaren 16an, barikuan, Tanttaka Teatroak obra eder hau ekarriko du Getxoko Muxikebarri Antzokira. Saioa 19:30ean hasiko da, eta sarrera bikoitzak ditugu zure zain!

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 4a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Arrainak bihotzean antzezlan

Otsailaren 12an, astelehenean, Mar-Mar teatroren haurrentzako obra polit hau hartuko du Getxoko Muxikebarri Antzokiak. Saioa 12:00etan hasiko da; sarrera bikoitzak ditugu zozkatzeko!

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 4a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



Euskarazko irakaskuntzaren alde;
matrikulatu zure seme-alabak euskarazko ereduetan

EUSKARA, gure etorkizuna



2 eta 3 urteko UMEEN AURREMATRIKULAZIOA:
otsailaren 7tik 24ra

Zure zalantzak argitzeko:

www.getxo.eus/euskara



Getxo
bizi ezazu

Bizkaia
Foru aldundia
diputación foral

